

**BIZENTA ANTONIA  
MOGELEN BIGARREN  
MENDEURRENA**

Azkoitia, 1982-VI-13



**BIZENTA ANTONIA MOGELEN BIGARREN  
MENDEURRENA**

*Azkoitia, 1982, Ekainak 13*

*Fr. Luis Villasante*

**Euskaltzainburuaren hitzak**

Ramon Sudupe, Azkoitiko Alkate jauna.

Rekondo, Gipuzkoako Diputadu jauna.

Juan Ignacio Uria, Herri Adiskide Elkartearen ordezkari jauna.

Azkoitiko herria.

Emakume euskaltzaleak.

Euskal Azentuari buruzko jardunetara etorri zareten jaun-andreak.

Euskaltzaindiko lagunak.

Jaun-Andreak:

Egun on denoi!

Nere lehen hitza bihoakizu zuri, Azkoitiko alkate jaun horri, bihotz-bihotzez eskerrak emateko. Eskerrak, ospakizun hau antolatzeko eman dizkiguzun erraztasun eta laguntza guztiengatik. Eta berdin Herri Adiskideen Erret Elkarteari ere, arrazoi berarengatik. Eskerrak, azkenik, Bizenta Mogelen omenaldi honetan parte hartu nahi izan duzuen guztioi!

Igaz Deban ospatu zuen Euskaltzaindiak Juan Jose Mogelen jaiotzako bigarren mendeurrena. Eta aurren Azkoitian ospatzen du Bizenta Mogelena, hemen Azkoitian jaiotzen baitzen.

Hiru euskal idazle eman ditu Mogeldarren familiak. Eta hiru horietarik bat, emakumea, Bizenta, hemen Azkoitian jaioa, nahiz eta gero, haurtzaroan umezurtz gelditu zenean, Bizkaiko Markinara joan eta han hazia izan.

Juan Jose eta Bizenta anai-errebak ziren, eta osaba apaiz Juan Antoniok hartu eta hazi zituen biak Markinan.

Gero, denborakin, biak, osaba bezala, euskal idazle izango dira. Eta hau da kontua: Juan Josek bizkaieraz idatziko du; Bizentak, aldiz, gipuzkeraz;

*Ipui Onak* liburua, behintzat, gipuzkeraz idatzirik dago. Osaba Juan Antoniok ere, bi euskalkietan, bai gipuzkeraz eta bai bizkaieraz, idatzi zuen.

Juan Jose Mogelen omenaldia Euskaltzaindiak ez zuen nahi omenaldi huts-soila izan zedin, eta Dialektologiako ikastaroa erantsi zion. Antzera egin du Bizenta Mogelen ospakizunaz ere. Omenaldiari Euskal Azentuari buruzko Jardunak eratziki dizkio.

Edo guztiz oker nago, edo lehen aldiz heldu dio Euskaltzaindiak euskal azentuaren auzi honi.

Horrekin ez dut esan nahi aztergai hau —euskal azentua— ez dela gaur arte bat ere aztertu, edo orokorrean edo eskualde edo toki batean. Hor daude, besteak beste, Altube, Azkue, Navarro Tomas, William Jacobsen, Dorita Lochak, Holmer, Larrasquet, Karmele Rotaetxe, N. Ormaetxea, Candido Izagirre, Mitxelena, Basterretxea, Laspiur eta abarren lanak.

Baina Euskaltzaindiak Euskaltzaindi denez eta orientabide edo gida moduko arau batzuk emateko asmoz, uste dut lehenbiziko aldiz hartu duela auzi hau aztergaitzat.

Jakina, aurtengo saioak lehen hurbilketa baizik ez dira izan, lehen abia-da, bidea urratzen haste bat. Gaia ez dago oraindik aski ondua eta heldua. Oraingoz ez da erabakirik hartu. Erabakia izango da, izatekotan ere, gaia ez dugula oraindik aski ezagutzen eta hobekiago ikertu behar dugula.

Euskal-Herria, euskara, Euskaltzaindia, halako egoera berri batean aurkitzen dira gaur. Bai. Sekula ez bezalako aukerak ditugu gaur. Eta hain zuzen, horrexegatik, sekula ez bezalako erantzunkizun larriak heldu zaizkio gaur Euskaltzaindiari burugainera. Eta Euskaltzaindia, bere ahalen neurrian, erantzunkizun horiei erantzuten ahalegintzen da.

\* \* \*

Sortze egunetik egotzi zitzaion egitekoari erantzun nahirik, euskararentzat salbabideak bilatzen ari da Euskaltzaindia. Euskararen salbamenduko obra hau, ordea, obra handia da, zaila, korapilotsua. Euskaltzaindiak bakarrik dena egin dezakeela pentsatzea, txorakeria izango litzateke.

Haatik, Euskaltzaindiak badu sail edo barruti bat bere-berea duena, Euskal-Herriak berak hartarako jarri eta hartarako autoritatea eman ziolako, hots: hizkuntzari buruz arauak ematea. Hizkuntzan beharrezko da honelako autoritate bat, honelako arauak emateko. Eta autoritate hori Euskaltzaindia da. Horretarako Euskal-Herriak berak, bere ordezkari jatorren bidez, mandatu eman zion. Hizkuntza lantze eta erabiltze kontuan arau gidariak emateko, alegia.

Eta lan horretan ari da. Euskara eskolarako, irakaskuntzarako, administrazioarako eta idatzizko zenbait zereginetarako tresna egoki izango bada, batu antzeko itxura bat hartu behar duela ikusten du Euskaltzaindiak, eta

hori lortzeko lanean dabil. Gainera, bere Sortarauetan agintzen zaio lan hau. Badakigu sobra ere, obra hori ez dela beti ongi hartua eta konprenitua. Ekin-tza honen azpian politika dagoela, ateismoa dagoela, zer ez da esan?

Beste salakuntza bat ere egiten zaigu: Euskaltzaindia euskalkien etsai bihurtu dela, eta bere euskara batu horrekin euskalkiak hil nahi dituela.

Hor zabaldu da liburu bat: *Euskaltzaindiari Epaiketa*. Bertan esaten da nik hau argi eta garbi aitortzen dudala. Harritu nintzen hori irakurtzean. Zorionean tokiaren aipamena dator liburuan: *Aránzazu* aldizkaria, 1980ko Iraileko zenbakia. Jo dut toki hartara. Artikulu hartan esaten da Euskaltzaindiak nahi dituela tokian tokiko hizkera bereziak jaso, eta horretarako Dialektologi batzordea sortu duela; herri hizkeren bilketak egiteko, alegia. Eta esaten da lan honek presa duela eta garrantzi handia. Galdetzaileak galdetzen dit ea zergatik duen presa. Eta nik erantzuten dut: Tokiko hizkera berezia galdu egingo delako. Eta zergatik galduko da?, galdetzen dit berriro nere lagun Arenduik. Eta erantzuten dut: Edo erdera batuak edo euskera batuak irentsi-ko duelako. Eta gaineratzen dut: Gauzak hola doaz, begien bistan dago hori... (*Aránzazu* (1980), 241).

Ikusten duzuenez, hemen euskalkiak nik ez ditut aipatzen ere. Euskalkiak beste zerbait dira. Euskaraz idazteko moldatu diren arrimu edo moldadura batzuk, horretarako erabiliak izan diren "euskara batu batzuk": hori dira euskalkiak. Bizkaiera, esate baterako, Markinako euskararen oinarriturik dago, eta, hain zuzen, Mogeldarren eta beste batzuen lanaz eta eraginaz moldatu zen. Baina Bizkaian bada, Markinaz gainera, beste herririk eta Markinako euskaraz landara beste euskara motarik, alajaina! Gipuzkerari buruz ere gauza bera esan daiteke.

Bai. Badakit. Jaun hauek, jakin gabez ala jakinaren gainean, gauzak nahasten dituzte: berentzat herriko euskara eta euskalkia gauza bera dira. Baina gauza bat da herriko euskara tokian tokiko bere berezitasunekin, eta beste bat, zeharo beste bat, euskalkia, idazteko erabili ohi den gisa, edo euskara batua.

Tokian tokiko hizkera bereziak! Horiek dira, ez euskalkiak, nik aipatzen nituenak, horiek dira atzeraka doazenak; eta ez euskararen bakarrik, beste hizkuntza askotan ere bai. Eta zergatik doaz atzeraka? Bizitzearen martxak edo aldakuntzak hori berekin dakarrelako. Lehen gizona pixka bat bere txokoko zuloan sarturik bizi zen. Orduan tokiko berezitasunak bizi-bizirik gordetzen ziren. Baina gaur gizona, nekazari lana utzirik, fabrikara doa, har-emanak gero eta handiagoak ditu beste eskualdeetakoekin, komunikabideak izugarritzko eragina dute giza-bizitzean, etab. Orduan, zer gertatzen da? Gizaldi berrietako jendeak tokiko berezitasun horiek galdu egiten dituela. Eta zer gelditzen zaio? Hizkera estandarizatu bat, pobretua, berezitasun haietaz gabetua.

Hori da nik esaten nuen "erdara batua edo euskara batua". Esaldi horrekin nik hizkera arrunt bat, berezitasunez gabetua, esan nahi nuen; eta hori

berdin izan daiteke euskalkia, euskara batua edo erdara arrunta. Beraz, hizkera bat tokiko berezitasunak galdu dituena. Ez ote da hori gure artean egunoro gertatzen? Bizitzearen aldakuntzak berak berekin dakar hori.

Eta hain zuzen, bizitzeak martxa hori daramalako, garrantzi handia du tokietako hizkeren berezitasunen jasotze honek. Jasotzen diren pitxi horiek —jasotzen badira—, euskara batua eta euskalkiak berak aberasteko eta erraberritzeko ere balioko dute; bestela, berriz, betiko galduak dira. Uste dut nere ikuskera eta pentsakera hau ur garbia bezain gardena dela.

Ni bizi naizen auzoan, Arantzazun, hori egunoro ikusten ari naiz. Hango euskara bereziaren hiztegi bat, neronek argitaratu nuen, Aita Kandido Izagirrek egindako bilketekin. Zenbat hitz, eta morfologi eta fonetikazko agerbidere berezi ez dira han! Azentuari buruz ere bere berezitasuna du Arantzazuko euskarak. Baina berezitasun hauek gizaldi berriari galzorian daude. Eta hori zergatik gertatzen den asmatzeko ez da oso azkarra izan behar: gaur-egun bizitzeak ezagutu duen aldakuntzak dakar hori berekin.

Aita Izagirrek bilketa horiek egin zituenean zaharregana jotzen zuen. Bazekien orduan ere horiek gordetzen zituztela ondoen berezitasun hauek. Bazekien bizitzearen joerak berezitasun horien galera zekarrela berekin. Horregatik esaten digu berak (1956. urtean idatzitako lerroak dira hauek):

“Badakigu zein illun, egundoko illunen, agertzen dala gure izkuntzaren etorkizuna. Orain, bertatik, lan ontan asi ezean, geroago lan au egiterik ez da izango. Zenbait lekutan euskerea azken-azkenetan, ogei edo berrogei urtetik gorakoak bakarrik itz egiten dutela dago. Leku oietan bizirik utsiko dionik eztago. Baina bizirik eutsi ezin badiogu, gure erriak eundaka edo millaka urtetan izan ditun berezitasun oiek, beintzat liburuetan ta al danik osoena gordetzea ez al dute merezi?” (Ikus **Euskera** (1981), 922).

Beraz, orduan ere, euskara baturik ez zenean, tokietako hizkera bereziak eta euskara bera ere atzeraka zihoazen. Ez gaitezen, bada, gerok asmatutako aker beltz edo iratxo baten bila ibil, hari erru guztiak botatzeko eta era horretara geure burua zuritu eta lasaitzeko; eta arren, inori, ez dioena ez diezaiogun ezar.

Oraindik orain Labaien jaunak ez al du esan hemendik hamar urtera telebistak erabiliko duen euskara erabiliko duela jendeak? Horra telebista euskara modu askoren hiltzaile aitortua. Baina horregatik telebista galerazi behar al da? Ez dut uste. Bizitzeak berekin dakartzan ondorioak dira hauek. Munduaren martxa edo ibilera geldiaraztea ez dago gure eskuan. Guk egin behar duguna da galtzeko zorian dauden ondasun horiek lehen bai lehen jaso. Eta hori da nik nioena.

Euskalkiei buruz, idazteko tresna literario batzuk diren aldetik, Euskaltzaindiak behin eta berriz esan du nahi duela lant daitezen, eta berak uste du beti egongo dela toki bat horientzat (Ikus **Euskera** (1979), 101).

Eta, azkenik, bego hau garbi: Euskaltzaindiak ez duela beste politikarik euskararena baizik. Alderdiei eta ideologiei lotu gabe, euskararen alde lan egin nahi du, zeren euskara guztiona baita, herriaren ondasuna baita.

\* \* \*

Bizenta Mogelen omenez egiten da gaurko ospaketa hau. Ez naiz hasiko haren bizitzeari eta euskal lanei buruz deus esaten, ezen gaur badugu hemen hortaz mintzatuko denik. Emakumeak euskal arloan duen zereginaz ere ez naiz mintzatuko. Atzo mahai inguru bat egon zen gai hortaz, eta mahai inguru horren ondorioez gero hitz egingo digute.

Euskaltzaindiak omenaldi hau Azkoitian egiten duenez geroz, ez da gaizki egongo, Bizenta Mogel aipatzeaz gainera, Azkoitiak eman dituen beste euskal idazleak ere aipatzea. Azkoitiarrak ziren Peñafloida Kondea, Aizkibel, eta azkoitiarrak Jose Inazio Arana, Manzisidor eta Guillermo Larrañaga jesuitak, eta azkoitiarra, guztiok dakiten bezala, oraindik orain hilberria dugun Nemesio Etxaniz apaiz jauna. Eta azkoitiar ez izanik ere, Azkoitian bizitu zen eta herriko mediku izan zen Joannes Etxeberri Sarakoa. Azkoitiarra Martin Itziar eta bizi direnen artean hor dugu Pedro Yrizar jauna, dialektologi gaietan maisu. Herri gutti izango da euskal literaturari hainbeste izen eman dionik.

Mendeurrenak eta honelako paradak baliatzen ditu Euskaltzaindiak euskararen aldeko ospakizunak antolatzeko. Horiakin gure herriaren euskal kontzientzia bultzatu eta azkartu nahi du. Euskal arloan ongi aztertu gabe dauden puntuak aztertzeko ere okasioa ematen diote gertaldi hauek; hala igaz dialektologi gaiak aztertzeko bide eman zigun Juan Jose Mogelen mendeurrenak, aurten Bizenta Mogelen mendeurrenak azentuarena aztertzeko eman digun bezala.

Euskal harrobian zerbait egin bada ere, asko eta beharbada gehiena egi-teke dugu oraindik. Nahikoa lan izango dugu euskara osasun onaren bidean ikusi nahi baldin badugu. Langile finen beharrean da euskara, eta espantuz eta oihuz dabiltzanak ez dira, gehienetan, langile fin izaten. Buruz, asmoz eta jakitez pentsatutako estrategia bat beharko da muntatu. Eta euskararen salbamenduko plan horretan emakumeak toki bat behar duela izan, hori gogoarazten digu Bizenta Moglek.

Bukatzeko, berriz ere eskerrak Azkoitiko herriari, alkate jaunari eta ospakizun honetan parte hartu duzuen guztioi.





## BIZENTA ANTONIA MOGELEN BIZIAZ ETA LANAZ ZENBAIT ARGIBIDE

*Azkoitia, 1982-VI-13*  
*Xabier Altzibar*

Jaun-andreak:

gure lehen emakume idazlea, euskal Ilustrazioaren fruitu izan zen.

Euskal Herrian Ilustrazioaren lehen arbola hemen, Azkoitian, landatu zen.

Bizenta Antonia Mogel Azkoitian jaio zen orain 200 urte eta Markinan hazi eta hezi, nahiz eta ezkondu eta gero Bilboko Abandon bizi hil arte.

Mogeldarrek harreman hestuak ukan zituzten Peñafloreatarrek. Bizentaren aita, osagile ogibidez, Erret Elkartean irakasle izan zitzaigun eta elkarte honetan, J. Urquijok aditzen ematen digunez, Medikuntza arloko zenbait lan aurkeztu zuen. Haren anaia Juan Antonio, eta orobat alaba Bizenta. Peñafloreda eta Munibetarrez laudorioz mintzo dira. J. Antonio, Xabier Maria de Munibek bere doluminik saminenean, seme Ramonen heriotzean alegia partaide izan zuen.

Nor zen Bizenta Mogel eta zer eta nola idatzi zuen? Galdera zailak niretzat, orain arteko ikerketa urriak kontutan harturik, zehatz eta sakon erantzuteko.

Hemen, ene solasaldi apal honetan, saiatuko naiz, zenbait paper zahar, ikusmiratu ondoren (1), gure idazlearen lana argitzeko zenbait alderdi zirriborrazten, hala nola:

1. Bizentaren bizibide eta kultur harremanak.
2. Ipui Onac: edizioak, textoa, egilea.
3. Alegia Neoklasizismo garaian. Iturriak. Norentzat eta zertarako idatzi zuen. Idaztankera.
4. 1820.eko Adierazpena: Luis de Borbon...
5. Gabon Kantak.
6. Bizenta A. Mogel berraurkezten.

---

<sup>1</sup> Bizkaiko Aldundiko Archivo del corregimiento.

### 1. Bizentaren bizibide eta kultur harremanak

Bizenta Antoniaren gurasoak Juan Ignacio Mogel Urkiza eta Maria Petronila Elgezabal izan ziren. Aita osagilea zuen, aitona bezala. Zaragozan egin zituen Medikuntza ikasketak eta Madrilen eman zioten titulua. 1775.ean Plazentziako osagile zela, ezkondu egin zen eta Debara aldatu. Hemen jaio ziren Bizenta Antoniaren neba-ahizpak: Maria Eustoquia (geroago Markinako Mertzedetako komentuan moja sartu zena), Felipa Catalina (gurasoek oinordeko egin zutena), eta Juan Jose, beste Mogeldar euskal idazlea. Aitamak Azkoitiara aldatu ziren, eta hemen sortu zitzaigun Bizenta. Urtebete zuelarik, aita hil zitzaion Zestuan, eta ama seme alabekin Markinara itzuli zen, beste Mogeldarren babesera.

Mogeldarrak mediku eta elizgizonez osaturiko familia bat ziren, kulturaz ondo jantziak, batzuk zientzietara eta beste batzuk letretara gehiago emanak. J. Aren aitak 1767.urteetik hasita auzi bat ukan zuen, lur eremuak zirela eta, Josefa de Ibarra-rekin. Auzia irabazi eta urte batzu geroago, 1771.ean hidalgia titulua eskatu eta lortu zuen, Gernikako Juntetxeko Artxiboan ikus daitekeenez (2).

Bizentaren ahizpa Felipa Catalina, Manuel Ventura Irure Arruako seme eta Markinako medikuarekin ezkondu zen 1810.ean. Hauei eman zizkien ama alargunak testamentuz, familiaren ondasunak, beste neba-ahizpak mantentzeko aginduz. Bizenta, ezkontzen bazen, 5000 dukateko doteaz hornitu behar zuten.

Markinan biziko da Bizenta ezkondu arte. Gaztetxo zela, 8 bat urteko, ikasteko zaletasun bizia agertzen zuen. Nebarekin batera latina ikasten hasi zen, osaba J. Antonio maisu. Garai hartan emakume batek ez zuen ukaiten ahal honelako aukerarik. Dena dela, osabak ere ez zion behar bezala lagundu. Honetaz ohartu zen Vargas Ponce eta J. Antoniori idatzitako gutun batean aurpegira botatzen dio: "Tolere Vm que salude a su bien aprovechada amanuense. ¿Por qué cortar los vuelos a esa águila? Créame y dé pábulo a esa llama tan brillante. Los espíritus privilegiados no se deben conducir por donde el común y aprovéchese Vm de mi sermón. Amén" (28-8-1803) (3).

Eta hona hemen zer aitortzen duen J. Antoniok:

"He de confesar mi ierro, o acierto, en no haver fomentado más los estudios de mi sobrina. La singularidad y genio de una muger me hicieron temer alguna altanería de espíritu. Las Gergas simulistas las entendía: formulaba sus argumentos arreglados. Conocía los silogismos en sus figuras, resumía muy bien, y se conocía su mucho talento.

<sup>2</sup> F. Amador Carrandi: Catálogo de Genealogías, 1958, 534-535 orr.

<sup>3</sup> Justo Gárate: La época de P. Astarloa y J. A. Moguel. Junta de Cultura de Vizcaya.

Paré en esto por cobardía, o por temor. Podía haverla instruido algo en Física, pero no soi mathematico. Entraba mui bien en el Francés con la instrucción de los Clérigos de dicha Nación —Mogelek bere etxean Frantziatik ihes eginiko apaiz batzu gorde zituen (4)— que estaban pasmados de lo bien que aprendió la pronunciación. Estos marcharon y creí la bastaba saber la traducción.

En cuanto a la inteligencia gramatical del Bascuence, apuesto a que en toda la Vizcaia no hai uno solo (dexo a Astarloa) que sepa mejor las inflexiones multiplicadas de los verbos...” (5).

1802.inguruan J. Antonio *Peru Abarca* eta *Alegiak* edo *Ipuinak* lantzen zebilen. *Ipui Onac* liburua argitara aurretik Bizentari landu eragin zizkion gipuzkeraz berak ordurako bizkaieraz itzulirik zituenak. Hau da nik azaldu nahi dudan hipotesia, geroxeago frogatzen saiatuko naizena.

Garai hartan Munibetarren adiskide zen, Vargas Ponceri 1805.ean igorritako gutunetan ageri denez. Jaun honen gutunen artetik Fernandez Duro-k zenbait hautatu eta S. Fernandoko Akademiak liburu bat argitaratu zuen: *Correspondencia Epistolar de D. José de Vargas Ponce en materia de arte*. Liburu honetan Bizentaren bi eskutitz datoz (1.eranskina), gure idazlearen apaltasuna eta gauzak argi eta garbi esatea gustatzen zaien horietakoa zela agerreraztan digutenak. Zenbait dato ere badakarte (Juan Joseren kulturaz; gatzeleraz, latinez eta euskalgaiztoko hitzez jositako Botanikako Alfabeto bat Madrileko Akademian aurkezteko durangar baten asmoa etab. ...).

1808.urtean Bizentaren senarra izango zenak *Peru Abarcaren* kopia eder bat egin zuen eskuz. *El Rustico y Minerva* ezarri zion izenburua, eta *P. Abarcaren* kopiaren ondoren 60 hitz lauuko Alegi edo Ipuin —galdutzat jotzen zirenak— dakartza (2.eransk.).

Eta ondoren, beste hamar bertsoz. Kopialariak berak dioenez “traducido todo al Bascuence Vizcayno por dicho Sr. Moguel, de cuyos originales papeles los he copiado con todo cuidado yo, Eleuterio de Basozabal. Año de 1808.”. Eskuizkribu hau Eduardo Unceta-rena da, eta berari eta beraren arreba M. Karmeni esker ezagutu ahal ukan dut.

Bizentak utzi ote zizkion eta zertako J. Antonioren esku izkribuak Eleuterio de Basozabal abandotar merkatariari? Argitaratzeko ote Basozabalarrren inprentan? Orduan ezagutu ote zuten elkar? Nor zen Eleuterio Basozabal?

1810.inguruan Brock, Laserre, Maingy y C.<sup>a</sup>-ko ordezkari zen. Algodoi, burdina nahiz tabakoa garraiatzeko untziak prestatzen zituen. La Coruña

<sup>4</sup> Jean Contrasty: *Le Clergé français exilé en Espagne (1792-1802)*. Toulouse. Librairie L. Sistec 1910.

<sup>5</sup> J. Garate: *La época del P. Astarloa y J. A. Moguel*.

joaten zen sarri. Bizentak, ordea, kultur merkatalgoa maiteago zuela dirudi. Adibidez, Bizkaiko Diputazioan egon zegoen Rollin-en ingelesezko liburu bat *The method of teaching and studying the Belles Letres*, Edimburg 1773, harena zen.

1815.ean Eleuterio, Juan Bautista Agirrereren aurka auzi bat ukan ondoren, honen partaide Acharekin elkartzen da, Compañía Acha y Basozabal osatuz (6).

1817.urtean, Abuztuaren 8an ezkondu ziren Markinan, Erdotzako ermitan. Bizentak 34 urte zituen. Hona hemen zer nolako dotea zeraman bakoitzak.

– Eleuteriok: Ripa-ko etxea (Abandon), tresneria eta ontziteria on batez hornitua, eta beste ondasun batzu: Arrigorriagako Lambo baserria (50.000 errealetan jotzen zen haren balioa) eta Altamirako baso bat.

– Bizentak: 55.000 erreal, 15.000 errealean balioa zuten bitxi eta apaingarriak, eta senarrak erregalatu zizkion 11.000 erreal. Guztitara, 81.000 erreal.

Konparazio batetarako, ene adiskide Roman Basurto, Bilboko XVIII. gizaldiko 2.parteko merkatalgoa ikertu duenak esan didanez, aldi hartan (XVIII.mende erdi ingurutik bukaeraruntz), Bilbon etxe on batek 70.000 erreal inguru balio omen zuen, itsasuntzi nahiko handi batek (fragata bat edo) 94.000 erreal inguru. Eta 800.000 errealetatik gorako ondasunak zituztenak Bizkaian 5 familia ziren bakarrik <sup>7</sup>.

Geroago Eleuterioren aita hil zelarik, bitxi eta apaingarritan beste 48.000 erreal inguru eskuratu zituzten, eta liburutan (eta sail honetan benetako diru piloa zen) 4.000 erreal inguru. Negozioak ondo joan zitzaizkien artean, hau da 1821. urte arte, ez oso aberatsak baina bai dirudunak ziren.

Jose de Basozabal, Eleuterioren aitak, inprenta bat ere bazuen. D. Jose Antonio de Jauregui agertzen da inprimatzaile<sup>8</sup>. Hau inprimatu zen Juan Jose Mogelen *Eguneroco lan on eta erreaguac...* 1820.urtean, Gabon Kanta zenbait etab... Basozabal eta Jauregui elkarrekin agertzen dira 1928.eko Gabon Kantak inprimatzen.

1820.ean Eleuterio Abandoko Udalean diruzain zen. Ulibarri ere kontadore-artxibatzaile garai berean, eta gero ere, 1823.etik 1826.era artean. Eleuteriok Garai fiela bota nahi zuen Udaletik edo kargutik hauzi batez. Argudioa: “que por zer cargo fallido –hau da, lur joa ondasun aldetik– no

<sup>6</sup> Legajo 353, n.º 12. 1815 ‘Arch. Corregim.’.

<sup>7</sup> Comercio y Burguesia mercantil de Bilbao en la 2.ª mitad del S. XVIII. Doktoradutza tesia.

<sup>8</sup> Legajo 859, n.º 8, Arch. Corregim.

pueda obtener empleos honoríficos ni asistir como concejante a los Ayuntamientos”<sup>9</sup>.

Geroago, 1836.ean, Akesolok dioskunez<sup>10</sup>, Ulibarri atera zen, bigarren zozketaldian, fiel errejidore kargurako, Eleuterio Basozabal eta Antonio Uribe lagun, baina urrietaz Udal konstituzionala ezarri zen.

1821.ean Acha eta Basozabalen merkatal elkarteak porrot egin zuen. Auziak ugari ukan zituzten hartzedunekin. Azkenean konpondu ziren zorrak ordaintzeko moduaz, baina hemendik aurrera ez ziren segur aski hain eroso bizi izan.

Senitartekoekin ez bide ziren ondo konpontzen, eta Bizentari senarra hil zitzaionean, seme alabarik ez zutenez gero, koinata baten semearen eskuetara joan ziren Eleuterioren ondasunak. Halabaina, hil baino bi urte aurretik, Bizentak koinatuei auzi bat irabazi zien. Legeak emakumeari onartzen zion eskubideaz baliatuz, berak ezkontzara eraman zuen dotea eta senarrak emana. (81000 erreal guztira) berreskuratu zuen.

Abandon hil zen, 1854.eko Irailaren 29an, 71 urte zituela. Testamentari: Bernabe Diaz de Mendibil jauna, azken auzietan Bizentaren ordezkari zena. Abandoko S. Vicenteko hilerrian izan zen ehortzia (3.eransk.).

## 2. Ipui onac: edizioak. Textoa. Egilea

*Ipui Onac, ceintzuetan arquiteco dituzten euskaldun necazari, ta gazte guciac eracaste ederrac beren vicitza zucentzeco. Ematen ditu Euscaráz arguitará ume eta necazariantzat D.<sup>a</sup> Vicenta Antonia Moguel ta Elguezabalec. Donostian: Antonio Undiano liburuguillearen echean. 1804garren urtean. Bear becela (4.eransk.).*

114 orrialde ditu, laurden tamainuko liburuxka honek. Bi hitzaurreak baino lehen Ciceronen texto bat dakar.

“Etenim haec conficta arbitror ... ut effictos nostros mores in alienis personis, expressamque imaginem vitae quotidianae videremus. Cicero”. Pro Sexto Rosc. Amer. 16.

Ondoren bi hitzaurre: lehena, “D. Victor Munibe ta Aranguren-gori, osasuna, paquea, ta urte luceac” izenburuaz; bigarrena: “Iracurle Euscaldunari”. Gero, 50 ipuin hitz lauz, eta hauek bukatzean “Ipuiac itz neurtu, edo verso euscarazcoan. Adigarria” (hitzaurretxo bat, non esaten bait du ipuinok ez direla bere burukoak, osabarenak baizik). Bertsozko ipuin hauek 8 dira eta 4.aren eta 5.aren artean orrialde batetako azalpen bat dator, gazteleraz, alegien narrazioaz eta metroez.

<sup>9</sup> Legajo 486, n.º 21. Arch. Corregim.

<sup>10</sup> Axmutil: Yose Paulo Ulibarri, euskal esnale ta idazle. *Olerti* 1962 I eta II.

*Ipui Onac*-en Bizentaren eskuizkribua Gipuzkoako Aldundiko Julio de Urquijo bibliotekan egon zegoen, baina zoritxarrez han ez da orain ageri.

1880.ean *Beti Bat* aldizkariak zatika argitara eman zuen. Gero, Azkuek *Euskalzale*-n 13 bat ipuin gutxienez (batzu gaztelerazko itzulpenez) eta bere ortografia berrian, komak aldatuz, azentua kenduz, zenbait aldaketa sartuz (cembat > Azk. zeinbat, enzun > Azk. entzun; baña > Azk. baiña; baño > Azk. baiño, etab...). *Euskal-Erria* aldizkarian ere bat edo beste agertu zen.

1912.ean *Euskal Esnalea* aldizkariak, berrargitaratu zuen Txomin Agirerren hitzaurrearekin, eta aparte ere liburu bat osatuz, Martin, Mena y C.<sup>a</sup>-renean.

Azkenez, Auspoak, J. San Martinek prestatuak. Lehen argitalpeneko testoa errespetatzen du (inprenta hustxo batzu edo zatitxoren bat edo beste ahazten duen arren), azentua kenduz, grafiak modernizatuz eta puntuazioa 1912.eko argitalpenaren arauera ezarriz.

Eleuterio Basozabalen *P. Abarca*-ren kopia eta Ipuinak ikusi ondoren, berehala konturatu nintzen *Ipui Onac* liburukoak eta hauek berdinak direla, ordena eta guzti, bat izan ezik. J. Antonio-renak 60 dira eta hauetako 51 lehenengoei dagozkie (bat ezik) Bizentaren 50 ipuiak. Bertsoz eginiko ipuietara bagoaz, Juan Antoniorenak hauek, Bizentak berak dioenez, Basozabalen kopiak 10 dakartza eta Bizentak dakartzan 8tik 7 aipatutako kopian daude, bat ezik (7.a). Azken hau ez dakar kopiak, agian tokirik gelditzen ez zaiolako. Baina J. Antoniok bertsozko ipuin pilo bat zuen eginik, Bizentak liburua argitara aurretik eta ipuinak landu aurretik segur aski. Honela bait dio Adigarran:

“Esan nuen len verso ipuizco oiec ez dirala neure burucoac. Pillo andi bat dauca eguinda nere Osaba Jaunac; ta pillotic artuac dira emen ecusico diran guchi batzuec. Saiagarri bat da au, ta ez gueiago.” Eta izan ere, J. Antoniok “Ensayo de la Poesía Bascongada en algunas de las Fábulas” izenburua ezarri zien. Beraz, Bizentak J. Antonioren bertsozko ipuinetatik aukera bat egin zuen, eta badirudi Basozabalek denak kopiatzeko lekuri ukan ez zuela. Mateo Zabala, Uriarte (*Poesía Bascongada. Dialecto Bizcaino*) eta bestek ere kopiatu zituzten J. Antoniok bertsozko alegiak, gutxi baina zenbait aldatuz. Izan ere, J. Antoniok berak ipuin bera (esate baterako “Otsua eta Anchumia”), bi aldiz datorrena, batetik bestera aldatzen badu, errazago da kopiatzaileek aldatzea, laburtzea nahiz luzatzea. Honela, jakina, zail da J. Antonioren bertsozko ipuinen testoa finkatzea, orijinala osorik agertzen ez den bitartean, baina, dena dela, Basozabalena da kopiarik hoberena. Bertsozko alegiak Jon Kortazarrek argitara zituen<sup>11</sup>, nahiz eta bat behintzat (Basantza, eta Ydijac), Basozabalen kopiako lehena, ez dakarren.

<sup>11</sup> F.L.V. 1980. 35-36.

Bagenekien, V. Ponceri idatzitako gutun batetan agertzen denez <sup>12</sup> (24-5-1802) J. Antoniok bazituela pila bat ipuin, ez bakarrik bertsoz, hitz lauz ere bai:

“Yo, además de los Diálogos que le cité a Vm (*P. Abarca*-z ari da) he trabajado a versión vascongada, ya en prosa, ya en verso vario, no pocas fábulas de Esopo y Fedro...” Baina, esan dugunez, galdutzat jotzen ziren.

Beste gutun batetan (Marq. 7-9-1803) <sup>13</sup>, hauxe dio J. Antonio:

“Las Fábulas en la parte de la prosa salen en su nombre. La hice trabajar, y hallaba yo poco o nada que corregir”. Nola ulertu behar da hau?

Basozabalen kopiako J. Antonioren Ipuin guztiak bizkaieraz datoz. Eta Bizentak dakartzanak, denak gipuzkeraz. Konparatzen baditugu oso antzerakoak dira, egitura ta guzti: ipuía, esan nahiaren azalpena (“ipuion onec esangura dau...”) edo antzerakoak eta azkenik errefrau tankerako esaera bat edo bertso pareatuak gehienbat. Azken hau ez da itzulpena, Renteriak eta bezala egileak asmatua baizik.

Gehienetan oso antzerakoak dira J.A.-renak eta Bizentarenak, eta askotan berdin berdinak. Esate baterako 11.,13., 15aren hasiera eta erditik behera, 16, 17, 20aren bukaera, 23.aren buk., 25.aren hasiera eta buk., 26.aren buk., 31, 32, 34, 35, 37, 40 buk. Batez ere azpimarratutako ipuinak (ikus 5. eransk. 17. ipuina).

Hau zehatzago frogatzeko, zati batzu ezarriko ditugu, batarenak eta bestearenak (kontuan euki behar da *J. Antonioren textoa Eleuterioren kopiakoa dela* eta huts batzu egon litezkeela).

a) *Ipui Onac* liburuan gaztelerazko zati bi daude (zenbait hitzen esan nahiaz aparte) eta biak erdi kopiaturik. Bata, 14.ipuinaren bukaeran, J. Antoniorenetik hartuta dago. Eta bestea, bertsozko 4. eta 5. ipuinen bitartekoa, Samaniegoren Alegien hitz aurretik. Biak ezarriko ditugu Alegiez mintzatzean.

b) Zenbait erakusburu, 26. Ipuinetik (Zaldia eta Astoa) hartuak: deskribapenak:

J.A. “zaldi eder bat, dana apainduba, cate cidarrezcoz, jarlecu ugal, ta anca- estalquiz urrez bichituz...”

B “zaldi eder bat, gucia apaindua, catea cillarrezcoz, jarlecu, ugal, ta anca estalquiz bichitua...”

J.A. “nire uliac argui eguiten dau: beguira cein mardó, guizen ta mamintsuba nagan...”

<sup>12</sup> Cartas y Disertaciones de D. Juan Antonio Moguel sobre la Lengua Bascongada.

<sup>13</sup> Justo Gárate: La época de Pablo astarloa y J. A. Moguel, 92 orr.

B “nere illeac argui eguin beardu. Beguira bada, cein mardo, guizen, ta mamitsua nagoan...”

J.A. “...dazau anchina bere (sic) aguiraca ito gura izan eban Zaldija, dana argalduric, adore ta aguinte guichigaz, lepuan ecazala zorro esquergaac, buruz beera...”

B “ezagutzen du lengo Zaldi bere aguiracari arroa, trallatic ceramala Errotari charrac, gucia argaldua, aguinte ta indar gabea, bizcarrean zituela zorro andi bi, buruz beera...”

Esakerak: J.A. “etorquizunai... beguiratu baga...”

B “etorquizunai beguiratu gabe...”

J.A. “pisubaren pisuz” “necatubaren necatuz”

B “pisuaren pisu...” “necatuaren necatuz”

Eta “moraleja” ere: J.A. “zapalduten badozu beeratuba, artuco dozu bere lecuba”

B “zapaltzen duenac beetua artuco du bere lecua”

27. ipuineko zenbait esaera:

J.A. “ez batzubeac, ez bestiac...”

B “ez batzuec ez besteac”

J.A. “alde, edo bandora”

B “bando edo aldera”

30. ipuinetik:

J.A. “¿Ceren bildur zarà? ¿Nire?”

B “¿Noren beldur cera? ¿Nere?”

31.etik: J.A. “ecin beragaz bururic eguin eban”

B “ecin bururic eguin zuen berarequin”

35.etik: J.A. “bestela ecinda”

B “Bestela ecinda”

15.etik: J.A. “ezta lapur oguiric igaroco neure eztarriti”

B “ez da nere eztarritic lapur oguiric igaroco”

28.etik: J.A. “goguango doc niri bazcarijá ucatuba”

B “gogoango didac niri, cer jan ematea, ucatua”

d) 6.ipuina: Guizona, ta suguea



J.A. “Ez dau onec esangura, cristinaubac dongaro eguingo dabela on eguitiaz ...”

B “Ez du onec esan nai Chistauac gaizqui eguingo duela on eguitiaz ...”

Edo beste ipuin batetako: “jarri gaitean Jangoicoaren escuetan.”

(Hau ez dator Esoporen ez Fedroren itzulpenetan). Beraz, bata bestetik hartuta daudela uste dut. Zein nondik, ordea? Ene iritziz, badaude arrazoi batzu pentsatzeko Bizentak J. Antonioren ipuinak gipuzkeraz landu zituela, orraztaldi eder bat emanez, edo bien artean landu zituztela, baina bizkaierazko testoa aurrean zutelarik. Ez da, ene ustez, latinetik zuzenean eginiko itzulpen bat, bizkaieratik gipuzkeratze bat baizik, edo bestela, J. Antonioren maisugoaren pean aldi berean erdal testoaren (zentzu zabalean) bizkaieratze eta gipuzkeratzea. Itzulpen kontuan Murgak Humboldt-i oharterazten zionez <sup>14</sup> J. Antoniok ez zuen (eta dizipuluak bai ote?) zehatz eta hertsiki itzultzeko ohi-turirik. Zein diren ene ustearen (Bizentak bizkaieratik gipuzkeratu egin zituela ipuinak, alegia) oinarriak?

a) 1802.eko Maiatzerako J. Antoniok Ipuin batzu landurik zeuzkan. Gipuzkeraz izan balira, Bizentak ez zukeen lanik.

b) J. A-ren 18. ipuina Bizentak ez du itzultzen. Beste guztiek Juan Antonioren ordena bera jarraitzen dute eta azken honek Esoporenena.

d) Bizentak (edo hobeki esan osaba-ilobek osabaren gidaritzapean), J. A-ren testoaren orrazketa lan bat egin zuen, huts batzu zuzenduz, hala nola:

Morfologian: J.A. “icasi biar da ebatera”

B. “icasi bear da ...ebaquitzen auciac” (I.0.3)

J.A. “eguacaz goijetan dabilzanan artian”

B. “egoz dabilzanan artean” (I.0.27)

J.A. “eta ce atseguña daucadan zu etortia ona biar orduban”

B. “ceimbat gozatzen naizan ... agertziaz”.

J.A. “urratuco ecin ditugunean”

B. “urratu ecin ditugunean” (I.0.14)

J.A. “daruac gaztetati buztarrija, izango da...”

B. “daramana... izango da...” (I.0.31)

J.A. “zaartu, adore bagatu ta astundu zan chacur gaisuac”

B. “zaartu, astundu ta ortzabetu zan chacur gaissoa”.

<sup>14</sup> Justo Gárate: Cinco Cartas Inéditas de Guillermo de Humboldt. *RIEV* XXV.

Sintaxian: J.A. "ecin dabenian besteric egon baño"

B. "egon baño besteric ecin duenean" (I.0.16)

J.A. "Erri batera, non ...

B. "Feria andi bat cegoan errira" (I.0.33)

J.A. "cañabera ta sare zacuan ecazac"

B. "zacuan cecartzen sareac" (I.0.39)

Ondoko esaldi honetan begira zein ederki zuzendua den osabaren textoa:

J.A. "lapur andi bati sinisteric emoten ez jaco legue zucenetan"

B. "legue zucenetan ez zaio sinisteric ematen lapur jaquiñari" (I.0.21)

"Edo" kentzen du Bizentak:

J.A. "opicijo edo biarguintzaren bat"

B. "biarguintzaren bat" (I.0.32)

Inkoherentziak ezabatzen ditu:

J.A. "chacurrac" (hasieran), "Chacurrari" (gero)

B. "chacurrac" (beti, bi bait dira) (I.0.30)

J.A. "eizarijarena, "dacus eizari bat", baiña: "eizarijacaz batera".

B. "eizaria" (bat, beti) (I.0.29).

Dena dela, orrazketa hau ez da beti ongi burutzen:

J.A. "eracusten deutse guizonai, ez inos inoren gachaz poztuten"

B. "eracasten dioe guizonai ez iñoiz pocic artzeco iñoren gachaz".

XIX, ipuina: Eulia eta Mandoa. Zabalak <sup>15</sup> Bizentari hitanoa gehiago erabili behar zukeela leporatzen dio. Elkarrizketa batzutan, ez beti ez eta osaba-iloben ipuin beretan beti ere, hika mintzo dira fabulako pertsonaiak (abereen artean edo gizonak abereei - alderantziz berorika - zuzentzen zaielarik, batzutan). Baina badago kasu harrigarri bat 19. ipuinean: mandoa euliari Bizentaren aldaeran toka mintzatzen zaio eta J.A.-renean noka.

Zuzenketa lan hau normala zen: Honela diotsa J. Antoniok Vargasi, segur aski *P. Abarca-z* ari delarik <sup>16</sup>.

<sup>15</sup> El Verbo Regular Vascongado del Dialecto Vizcaino.

<sup>16</sup> Cartas y disertaciones de D. Juan Antonio de Moguel, sobre la lengua vascongada. Memorial Histórico-Español, t. VII, 1854.

“Confieso que mis cartapacios están trabajados como en borrón, que hay repeticiones y otros defectos; que por lo común cuando uno trabaja la vez primera se descuida en varias cosas y son precisas correcciones para que pueda publicar” (30-3-1802).

Hala ere, geroxeago beste honako hau esango digu: “No es mi ánimo darlos a luz (*P. Abarca*-ko elkarrizketez ari da, ia seguru). Mi estudio principal ha sido el aprender el idioma para hablarlo con pureza original y facilidad, así para presentarme en el púlpito como para trabajar obras religiosas” (Vargas Ponce-ri, Marq. 24-5-1802<sup>17</sup>).

e) Zenbait xehetasunengatik pentsa liteke Bizentak, zenbait aldiz, ez duela ondo ulertu osabaren textoa, beste batzutan trakets itzuli duela, edo bizkaierazko textoak influentziatu duela:

I. 8. “Guizona eta Suguea” J. A. “Jarqui jacon”

B. “jaiqui zan”.

I. 19. “Eulia eta Mandoa” J.A. “eztencada chacharrac gaiti”

B. “ire ezten chaarrac ateratzen bacidac”.

I. 37. “Otsoa ta Achurlaria” J.A. “gogoango eutseela... eutsenai”

B. “gogoango didate... vicitza quendu nairic ebilli ciranac”

### **3. Alegia neoklasizismo garaian. Iturriak, norentzat eta zertarako idatzi zuen. Idaztankera**

Fabula edo Alegia ez zen berezko literatur generotzat jotzen, tresna erretorikotzat baizik. Geroztik La Fontaine eta XVIII mendeko aleman teori-koek (Lessing, Herder, geroago Grimm) funtzio sozial bat ematen diote.

Neoklasizismo garaian Alegiak gorakada egin zuen, alde batetik Esopo, Fedro eta abarren berralgitalpenak ugaldtu ziren eta bestetik alegilari ainitz sortu zen bazterretan.

Esoporen alegiak sinpleak dira baina geroztikako itzulari eta egokitzaileek beren moduz berkeatzen eta luzatzen dituzte.

Mogeldarrek bai Esoporen bai Fedroren bai Samaniego eta Renteriarren alegiak ezagutzen zituzten. Honela dio Bizentak hitzaurrean:

“¿Nola nic siniserazoco diet ascori, eusqueratu ditudala erdaldun jaquitunac arguiratu dituzten Ipuiaç?”

Eta behe-rago: “Orretaraco bear litzaque jaquitea Eusquera, Gaztelania, eta Latinezco iru izcuntzac ...”

<sup>17</sup> Cartas y disertaciones de D. Juan Antonio de Moguel, sobre la Lengua Vascongada. Memorial Histórico-Español, t. VII, 1854.

J. Antonioren bizkaierazko alegi gehienak eta Bizentarenak Esoporen alegitza jotzen zirenen itzulpena da eta ez denena. Badaude Fedroren bi ere (J. A-ren 52.a eta 53.a, berariaz seinaturik. Eta Ibañez de la Renteria-ren zenbait (jaun honek bere alegien lehen tomoa 1789.ean argitara eman zuen, eta 1797.ean bigarrena), hala nola:

I. O. 3.a = Rent. 48.a (lehen tomoa)

I. O. 5.a = Rent. 3.a

I. O. 6.a = Rent. 50.a (bigarren tomoa)

J. A. Mogel 9.a = Rent. 45.a

J. Antonioren bat, Azerija ta Eperra, egileak berak asmatua dela (“de nueva invención”) oharterazten digu.

Baina eta Esoporenak eta, zein textotatik itzuli zituen J. Antoniok? Latinetik ala gazteleratik? Hau argitzea komeni den puntu bat da, J.A. Mogelen itzulpenak nolakoak diren jakiteko. Esoporen gaztelerazko zenbait itzulpen (Janer, 1489.ekotik etab.) laburragoak dira Mogelenak baino. J. Antoniok narrazioa eta batez ere fabularen moralitate edo aplikapenean luzatzea maite du, elkar hizketa zuzenak ezartzen ditu, erretoriko izan nahi du. Horregatik, itzulpen zehatza ez denaren susmoa dut.

Nortzu izan ziren J.A. eta Bizentaren eredu alegigintzan? Esopo eta Fedroz aparte, Samaniego eta Renteria, biak aipatuak, eta are gehiago, aurrean eduki zituzten ereduak. Esate baterako, metrikaz hona hemen zer dioen Samaniegok:

Samaniego: “con la variedad de metros he procurado huir de aquel monotonismo que adormece los sentidos y se opone a la varia armonía, que tanto deleita el ánimo y aviva la atención...”

... Se hallará en mis versos gran copia de endecasílabos pareados con la alternativa de pies quebrados o de siete sílabas...” Eta Bizentak, laburtuz eta euskaraz itzultzeko lanik hartu gabe:

Bizenta: “Para no incurrir en el gran vicio del monotonismo, que adormece los sentidos, y hace enfadosa la oración mas eloqüente, quando, por el contrario, la varia armonía deleyta el ánimo, y aviva la atención, se ha procurado la variedad de metros, sin echar en olvido nuestro comun zortzico. Pero es preciso confesar, que los versos endecasílabos pareados con la alternativa de pies quebrados, o de siete sílabas, tienen no se que mayor y mas agradable armonía”.

(Hemen ikusten ahal dugu, bidenabar, zer nolako metroak erabiltzen zituzten.)

Literatura xede praktikoko baten zerbitzuean zegoen Neoklasizismo garaian. Hezkuntza zuen helburu. Samaniegok dioenez “basa en que estriva

la felicidad pública” da hezkuntza. Eta gazteria da hau zuzenean hartzen duena, baina garai hartan, gazteria eskolatua eta honen elitea, hau da, handiki semeak. Esate baterako, Euskal Herrian, Bergarako Mintegiko ikasleak. Hautentzat idazten du Samaniegok eta Peñafloidako kondeari dedikatzen dizkio bere Alegiak. Bizenta ere gaztetxoei zuzentzen zaie, eta gaztetxo handiki bati eskainia dago liburua: Victor Munibe eta Arangureni. (Bestalde, Ibañez de la Renteriak ere umeei dedikatzen die bere obra).

Zertarako literatur mota hau? Gaztetxoei ideiak errazago eta goxoago sar dakizkien, ulertzen duten hizkuntzan, ikasketak latinez egiten hasi baino lehen. Horregatik, honetaz oharturik behar bada, eta Samaniegoren alderantziz, euskaraz landu ta argitaratu zituen Bizentak ipuin hauek. Jakina, Ipuin hauek ez dute edozein herri ipuin bezalakoak izan behar, “Ipui Onac” baizik, edo Samaniegok dioen bezala “cuento moral”.

Bizentak, euskararen balioaren kontzientziaz aparte, badu kezka sozial bat ere. Orduko baserritarrak, gehienbat errenteroak zirenez gero, nagusi-maizterren arteko harremanek arduratzen dute gure idazlea, zenbait ipuinen esan nahia azaltzen duenean nabari denez.

Hona hemen zer dioen, 14. ipuinaren bukaeran:

“Hasta aquí se han sacado las fábulas más acomodadas para la Instrucción del Pueblo Bizcaino, del primer libro de Ysopo.”

Bizentak, honela aldatzen du:

“Hasta aquí se han sacado las Fábulas más acomodadas a la capacidad y genio de los niños, y vulgo labrador, del primer libro de Esopo.”

Bestalde, J. Antoniok, *P. Abarca*-n bezala, helburu apologetiko bat ere bilatzen du. Euskararen garbitasunak kezkatzen du 1802. Maiatzaren 24an Vargasi idatzitako gutunean, zera dio:

“Yo, además de los Diálogos que cité a Vm., he trabajado a versión vascongada, ya en prosa, ya en verso vario, no pocas fábulas de Esopo y Fedro, sin que el castellano más hábil, leyendo nombre por nombre, me halle un vocablo no vascongado ...”

Jakina, hau ez da beti egia gertatzen, eta orduan “edo” nekagarri baten bitartez asmatzen dabilkio erdaratiko hitzari euskal baliokideren bat.

Ezarritako helburuak betetzeko (ipaina bera eta honen esan nahia ongi entelegatzeko) egitura sinplekoa, argia, arina eta bizia behar du izan ipuinak. Horregatik, J. Antonioren alegiak ipuinak askotan konstruzio formal, konplexu eta aski trakets gertatzen bide zirenez gero, Bizentak (edo bien artean) orraztu egin zituen (edo zituzten), J. Antonioren mendeko perpausa zenbait (erlatibo, kausal etab.) eta aditz trinkoen forma ez hain erabiliak, perpausa

bakun eta aditz forma erabiliagoez aldatuz. Nahiz eta inoiz, Bizenta gehiegi luzatzen den azalpenetan, hobeki ulertua izan dadin ipuinaren esan nahia, seguraski.

Bizentaren idaztankera arinaren adibide batzu ezarriko ditugu, J. Antonioren ber textoeekin alderatuz:

J.A. “barriz basocua, ecanduta ez eguan leguez arerijoric icustera, ta besteti, ez jaquiñic celan ta nora igues eguin, igon eban nequez orma bateti gora, ta guichiarren artu ta ill ez eban Guiltzeriac”.

B. “Basotarra icaraturic cegoan, cer eguin ez cequiala: artzen du igues videa, jarraitzen dio catuac, icutzen dio cerbait atzaparraquin, baña zorionez ez zuen arrapatu” (I.O. 7.a)

J.A. “zaartu, adore bagatu ta astundu zan chacur gaisuac (sic), gueratu bere bai oi utsacaz, aguiñac jausi jacozalaco”

B. “zaartu, astundu ta ortzgabetu zan chacur gaissoa” (I.O. 16)

J.A. “imincituban albo ta inguru guztian chimino asco bacochari egocan toquian, celanguazan bacocharen cereguiña”

B. “ipiñi cituen albo bietatic beste chimo guciac, ematen ciola bacoitzari cegoquion toquia” (I.O. 40).

*Ipui Onac*-en idazkera eta joskera trakets samarra da askotan, nahiz eta zati landuagoak ere ukan. Ezaguna da Zabalaren erizpidea, J. Antonioren *Confesio eta Comunioco Sacramentuen gañean eracasteac* epaitzean: “deben perdonarse algunos defectos que incurre en el dialecto”. Eta *Ipui Onac* liburuaren egileaz hau dio: “Al bascuence de la Sobrina cuadra la calificación que al del tío, excepto que su colocación es menos airosa que la del de este”<sup>18</sup>. Beharbada Bizentak Zabalaren erizpidea ezagutuko zuen, eta dena dela, 1820.eko *Adierazpenean*, hau ere itzulpen den arren, joskera eta idazkera jatorrago bat darabil.

#### 4. 1920.eko adierazpena: Luis de Borbon ...

Jakina denez, Bilbon, 1820.urtean, Pedro Antonio de Apraiz-en inprimategian, 11 orrialdetako Adierazpen bat argitara eman zen, gaztelaniaz eta euskaraz (ikus lehen eta 11.orrialdeak, 6.eransk.)

Adierazpen hau, elizgizonei zuzendua, bikoitza dela esan genezake: alde batetik, Luis de Borbon Toledoko Arzapezpikuaren sarrera moduko bat dator eta ondoren zuzenean Erregeren adierazpena.

<sup>18</sup> Noticia de las obras vascongadas que han salido a la luz después de las que cuenta el P. Larram.

Bizentaren itzulpena J. Antonioren markinar literatur ereduari izkiribatua da.

Besterik itzuli ote zuen?

Uriartek Bonaparteri hau diotsa: “Remito a Vd. la adjunta traducción de D. V. Moguel.”<sup>19</sup> 1820.ekoa ote da?

P. Garmendiaren *Indice por orden alfabético de escritores vizcainos antiguos y modernos*-en<sup>20</sup> Bizentaz hau irakurtzen da:

“Autora de varios opúsculos, traductora de los documentos oficiales que en su época le encomendaba la Diputación.”

Egia ote? Merezki luke arazo honek aztertzea.

Hemen Bizentak itzulpen honetan darabilen hizkeraz ihardungo dugu bakarrik.

Itzulpena, oso librea da. Adibidez:

“exenta de frivolidades, de los sarcasmos y de las injurias”

“aldenduric umequerija, asmo oquer eta inoren gacha”

“la vigilancia sobre los funcionarios que entiendan en su desempeño”

“vitarteco cargu oneec darabilezanac ciur dabiltzan ala ez”

Zentzu jeneralari atxikitzen zaio. Zenbait zati oso (zailenak, gaztelaniazko textoan), gaingiroki edo bat ere itzuli gabe daude.

Trinkoa da, baina ez zehatza. Hizkera juridiko-politikoa oraindik euskaraz landu gabe zegoen. Zenbait aldiz erdararen kalko gertatzen da. Adibidez:

“apenas pisé el suelo patrio...”

“ez nintzan ondo eldu neure Jaiot lurrian ...”

Hiru alderdi aztertuko ditugu: lexikoa, morfologian pluraleko 2. pertsonako aditz forma (indikativoko orainaldian) eta grafiak.

a) Lexikoa

Bizenta garbizalea da, baina erabiltzen diren zenbait erdaratik hitz baztertzeko adina ez. Adibidez: Sacerdote, Religioso, Apostolubena, Compijanzia, Nacinoe, obligacinoco, esleidutia, amodijuaren, carta, escribiuta ...

Hitz berririk aintz erabiltzen du, maiz “edo” batez baliatuz. Parentesiarte ezarriko dut erdal hitza, textoan datorren modura:

<sup>19</sup> RUIZ de Larrinaga: *Cartas del P. Uriarte al Principe Bonaparte* (ASFVJV, I, 1954).

<sup>20</sup> P. Garmendia. *Correo Español-El Pueblo Vasco*, Bilbao 1944-45. Ikus Javier de Ibarra *La obra de Pedro Garmendia*, Bilbao 1956, 107-128 orrialdeak.

“Lelencarija”, Elexa lelercari (Primado, Iglesia primada)

“Aozdar edo Vocale” Larramendirenak dira hitz batzu, hala nola hau eta ondokoa.

Baquida edo general

Ciricari edo Fiscalei, Arimazain edo Curei, Arzobispauco barrutar (diocesano), Siniste edo Fediagaz, guda edo pelia, languintza edo oficiuetan, one-rechi edo caridadian, Alderrijan (en la aldea), zuzengarri edo Constitucinoe, legue edo zuzengarri —hemen ikusten da garbizale bai, baina zehatza ez dela batere—, Bacaronda edo Monarquija, Batzaar betico eta banacacuetan... (Cortes generales y estraordinarias), Aguintaritzza edo Gobernuba, pagau biar edo Contribucinoiac, autute edo elecinoe, locabe edo libertadiaren Carta, guizonac gara locabe edo libriac, carta locabe edo libertadecua, moldizqui edo inprentaco...

Inoiz, etimologiazko zentzuaren arauera itzultzen du:

“discusiones políticas” = “eztabaida uritadacuac”

“relig. católica” = “erleginoe guztientzaco edo Catoliquia.”

b) Pluraleko 2. pertsonari (zuek) dagokion aditz forma (indik. orain). Morfologiari dagokionez, puntu honetaz ohartu naiz batez ere.

Jakina denez, bizkaiera zaharrean, orain zu-ri dagokion forma erabiltzen zen. Bizentak eurrez erabiltzen ditu aditz forma zahar hauek. 31.aldiz bai, hau da, gehienetan. Gaurko formak gutxiago agertzen dira (10-15 aldiz gehienez ere) Hona hemen 31 formak:

“eguija au guztioe *daquizu* ez dana ...”

(baina: “iracurri eguizuz bada...”, “billatu biar dozubez ceubec...”

“icusi eguizubé ...”, ez badozubez ...”, “ez deijozubela.”

“eguin detsubezan...” (zuei), “emon biar dozubeez”, “zabaldu eguizube”, “izan zaitezeeen hurrian...”, “ez zaitecé aztu cetaraco...”, “erregututen detsubet”).

“agertu *deustazu* ceuben borondatia dana barriztetia...” (me habéis hecho entender ...)

“guda edo pelia gogorren artian *cembiltzarian*...”

“atseren *eguizu* bada ceuben erregue... verba eguiten *deutsunagan* (confiad en vuestro rey, que os habla...)”

“Aldendu *zaitte* ...” (evitad...)

“obato zubeo etsi *daguizun*” (fijar más la atención en el convencimiento de la importancia de vuestra sumisión)



“ceubec icentauc *dituzula*, “ceubec icentau *daiquezu*”, “nic orain barriztetan *deutsu*”, “aguinduten *deutsu*”, “elduten jatzunian”, “uste *dozuna*”, ceuben vicitza guztian gomutau *zaitiala*”, “cerren ceubec eracarrri *daiquezu*”, “neure ardurara *zagozan* arima maitiac, *daucazu* ceuben... ceuben erreguec sillaturic viurtu *detsuna*, ceuben...” “contu, celan aituten *dozun*...”, “aldendu *zaitte*, bada...” (guardaos...) “zubec batezbere autu *zaitudazanoc*...”, “ez zaitecé aztu cetaraco emon *neutsuzan* (vosotros a quienes he tenido el santo placer de admitir en mi diócesis a la recepción de los ordenes sagrados...)”

“aguertu *zaitte* eurén aurrian (presentadles con exactitud los ejemplos de pureza de vosotros mismos)

Begira nola darabilen punturik gabeko esaldi luze hauetan:

“Zubei neure ardurara *zagozan* arima guztiei *deutsudan* amodijo andi, eta Jesucristoren errai samurrac gaiti erregututen detsubet, vici *zaitiala* beti Evangelijuaren zucentasunian, izan *zaitiala* centzun onecua ceuben eguitadétan, garbijac olgantzetan, cintzo eta azcorrac umien acieran, beguiratubac, leijal, eta ciurrac ceuben cargu eta opicijuetan; euei *daizula* Jaungoicozco prestutasun andibat eguitada guztietan, eruapena etorquizun, eta munduco gora bereetan, ez izatia laarreguijac gurarijetan, ez *daizula* iñoren alde juzguric eguin, artu *daizula* beti guizon oneen erechija, ecarri *deijuezula* obedentzija Aguntari...”

Beste puntutxo bat: erdaratiko hitzak-i-ón bukaera duenean, artikulua gabe euskaraz -oe bilakatzen da. Adibidez: constitucinoe, nacinoe, veguitancinoe. Baina artikulua hartzean, -ia: Constitucinoia, Nacinoia- etab.

d) Grafiak.

Hemen zenbait fenomenuren agerpenaz oharreraziko dugu irakurlea.

– bokale luzeak:

1. hitz bukaeran, kasuaren hizkiarekin elkartzean:  
Christinaubeen, leuneen, oneen, chiquijeen, ditubeenac, gomuteetan, verbaac (hiru aldiz), eguillaac, legueguillaac, gachguillaac, acieraan, ezagueraan, eguitadaac.
2. hitz barnean: chaar (4 aldiz = charrei), miin (3 aldiz), naaste, aastu, guraarijac, gora bereetan (sic), laarreguijac eguijaz (2 aldiz), luurrian (3 aldiz).

– ∫ / fonema idazteko, bizentak s (isiltasuna, isildu, ios, inos, gueistuac, gueistocuac, gueistaquerijac, nas, nasala... eta X (elxa) erabiltzen ditu.

– Nola idazten du i-ren ondoren 1,n datozenean?

1. dipt. + n = bustiduraz: ceñec, ceñetan, baña, baño, erreñuico (≠ erreinuco, 2 aldiz), engañuzko, arimazaiñac, usaiña.
  2. in + vok. = bustidura gabe gehienak: imini (7 aldiz), premia, nacinoe, obligacino, elecinoe, burutacinoezco, veguitancinoe, murmuracinoia, erleginoe, contribucinoiac, bedeincacinoia, Christinabeen, jaquinac, jaquinenac, eguinic (≠ eguiña) sinistu, aleguinez, aleguinagaz, inor etab. (3 aldiz ≠ iñor, iñoc... 7 aldiz) grina, bardinac (≠ bardiñac, 9 aldiz), dinuan ...
  3. -in = bustidura gabe, beti: arimazain, ecin, cein, duin, eguin, aleguin, jaquin...
  4. Dipt. + 1 = bustiduraz (baina adibide gutxi dago) laguntzalliac...
  5. il + vok: bustiduraz gehien bat: illundu, illunac, sillaturic, billatu, eguillia. Baina: darabilezanac.
- Azentua: aditz formetan: dá (2 aldiz), dirá, ditubè, balitubè, jatsubè, zaitecè (2 aldiz), eguijozubè, deutecè.
- Genitibo eta inesibo pluralean: beguijèn, eguitadèn, eutsazanèn, errijèn, jarraitzalèn, douguèn, Christinaubèn, gaucètan, egitadètan.
- Bukaera eufoniko deituetan, zer esanik ez: -oa > Bizentak-ua; -ea > Bizentak -ia; -ia > Bizentak-ija; -ua > Bizentak-uba.

Ortografia, Bizentak osabaren eskolan ikasi zuen.

## 5. Gabon kantak

Ezaguna denez, Bilboko Santiago elizan eta Abandoko S. Frantzisko komentuan Eguberriz kanta paperak ateratzen ziren Bizenta hor inguruan bizi zen garaian eta aurretik ere. 1814, 1816, 1817 eta 1829.eko Gabon Kantak aipatuak dira Sorarrain eta Vinsonen bibliografietan. 1814, 1816, 1820, 1825, 1826 eta 1828.ekoak, Apraiz, Basozabal eta Jauregui kargitaratuak ditugu. 1819.ekoa C.A. F. Mahn-ek dakartza <sup>21</sup> eta ia segur Bizentarenak dira. 1820 (Aita J. I. Aranak dakartzan zatiak, ikus geroago), 1824, 1825, 1826, 1828, 1829, 1831 eta 1832.ekoak ere ezagutzen dira <sup>22</sup>. Gabon Kanta hauek (1926.ekoak ezik, Ulibarrirenak hauek), Bizentarenak direla esango nuke. Ideia tradizional beretsuak errepikatzen dira behin eta berriz, eta grafia, hizkera, lexiko eta metrikaz berdintsuak dira.

<sup>21</sup> Denkmaller der baskischen sprache ... Berlin 1857.

<sup>22</sup> J. Urquijo liburutegia. Gipuzkoako Diputazioa.

1819.eko Gabon Kanten textuak izenburu hau du: Gaboneco Cantia vizcaitar guztientzat, euscaldun emacume batec ateria 1819.garren urtian Abandoco elexatian.

Zortziko txikian (7/6 “Lelua” eta “Gabon Zortzicua” deitzen du kanta hau) moldatutako bertso hauetan egileak bere mendeko herritarren ohituren nasaitasuna eta fedearen galtzapena salatzen du, aintzinako euskaldunak goraiapatuz eta eredutzat ezarriz (Leloren Kantaren oihartzuna nabari da Gabon Kanta honetan. Jakina denez, osaba J. Antoniok ezagutarazi zion Humboldt-i eta honek Europa guztiari).

Ikus dezagun “Ubi sunt”-topikoaren aldaera hau:

18. Nun dogu Vizcaitarrac  
 orduco fedia?  
 Nun gueure garbitasun  
 eta sinistia?  
 Orain argaldu dira  
 alaco vijotzac,  
 guizonac emeturic  
 dirudije motzac”<sup>1</sup>.

Azken bertsoa, orduko ardura nagusi baten adierazgarri gertatzen da

28. Gure Erregue onac  
 Ta emazte cinzuac  
 laztanduco ditube  
 Vizcaico auzuac.  
 Eurac izango dira  
 gueure Gurasuac  
 ta zainduco descubez (sic)  
 osoro Forubac.

J. Urkijok, RIEV-en (I, III) argitaratu zituen Mateo Zabalarenak ziren alegietan nabaria da Bizentaren eragina. “Berba aurrecoa”-n bertan, azken ipuina (“Peru Achurlari alferragaz Yoane necazale cintzoaren arteco berbai-cuntzea) D.<sup>a</sup> Vicenta Antonia Mogelena dela esan ondoren, honek *Ipui Onac* liburuaren sarreran ipuinez eman zituen eritzi berdintsuak errepikatzen ditu hark:

Bizenta: “Umeago nintzanean berriz enzun oi nituen, zoro zororic, ta pozez erotuta atso ipuiac. Sinisten nituen eguia andi batzuec becela, Peru, ta Mariaren ipui farragarri, ta sustraigabeak”.

<sup>1</sup>Kontura gaitezen, bide batez, nolako gauzak esaten dizkien gure emazte omenduak gizonen. Honelakoak hamaikatxo aldiz ogertzen dira Gabon Kantetan. Bestalde, Sabino Aranak baditu aitzindariak “bere elexatian” (ez ideologia mailan bakarrik, idazkeran era bai) eta Ulibarri aurrerengoa.

Zabala: "Badakit nic gueure euscaldunac ipuinzaleac direala. Gogoan dot oraindo celan umetan entzun geroazan aoa zabalac eta adurra erigula, Peru ta Mariaren ipuin sustraibaacoac. Oraingo oneec dira sustrai andicoac, mamiñ ederrecoac, eta on eta onura zabalecoac".

Eta geroxeago: "iracurri eguizuz ta eguikezuz ipuin on oneec" eta 35 ipuinei "Ipuin Onac" izenburua die ezarten.

Ipuin hauek baino aitzin, sarrerako bertso batzu datoz eta ondoren 'Anchinaco euscaldunen Alabantzac' izenburupean bertso saldo bat. Hauek idatzi zituenak, gehien bat 1819.urteko Gabon Kantetako bertso osoak kopiaitu zituen. Gai eta ideia beretsukoak dira. Hona hemen alderaturik zenbait bertso:

## 1819.eko GABON KANTA

(B. Mogel?)

4. Alperric gura eban  
Anibal andijac  
ecer ezetan euqui  
Vizcaico mendijac.  
Beste Gaztelu baga  
gueure basuetan  
coldarturic lotu zan  
ta ondo benetan
5. Bere gente arrotza  
noc daique sinistu,  
euscaldunac ebeéla  
aimbeste lotsatu?  
Izanic escubete  
Vizcaico gentia  
bildurrez bete eben

Erroma guztia.

3. Augusto Erromaco  
Emperadoriac  
nai cituban mempetu  
Vizcaico gentiac:  
baña euren indarrac  
ondo ezaguturic  
igues eraguin eutsén  
Vizcaico lurretic
12. Cesar Agustoc eban  
ondo ezagutu  
Vizcaitarren asmua  
eta eban autu,

## FABULAS EN DIAL.

VIZCAINO

(Zabala)

- Alperric gura eban  
Anibal andiac  
ecer-ez-etan euki  
gueure euscaldunac.  
Beste gaztelu baga  
euren basoetan  
coldarturic lotu zan  
ta ondo benetan
- baya dóás iguesi  
ondo lotsaturic,  
escu-bete guizonec  
arpegui emonic
- Augusto Erromaco  
Enperadoreac  
nai evazan menpetu  
euskaldun zagaiac;  
baya onêc galtzarrai  
erruz eraguinic  
igues erazo eutsen  
euren muguêtatic
- Octavianoc bada  
ondo ezagutú  
guere azkartasuna  
eta evan autu

- |  |  |
|--|--|
| <p>baquia esquintia<br/>bazer chiqui oni<br/>beragaz izateco<br/>adisquide beti</p>  | <p>bakea eskintzea<br/>baster chiki oni,<br/>beragaz izateco<br/>adiskide beti</p>   |
| <p>7. Erroma izugarri<br/>Fede bagacuac<br/>nai euscuzan ecarri<br/>Jangoico falsuac<br/>Ezarri buztarrija<br/>gueure idunetan.<br/>sartuteco Vizcaija<br/>Legue barrijetan</p>                          | <p>Erroma bildurgarri<br/>fede bagacoac<br/>nai euscuzan ecarri<br/>guzur Jaungoikoak<br/>ezarri buztarria<br/>gueure idunetan<br/>euskera ta legueac<br/>galdu bas artêtan.</p>           |
| <p>8. Gure Aasaba onac<br/>au ezaguturic,<br/>iños macurtu ez eben<br/>iñori bururic.<br/>Alcar ondo arturic<br/>dinue, lenago<br/>il senar ta emazte<br/>azpiratu baño.</p>                             | <p>Gueure asaba onac<br/>gauzac igarriric<br/>iñosh bêtû ez eutsen<br/>besteri bururic<br/>Alcar ondo arturic<br/>diñoë: "Lenagó ondatu<br/>tal il danoc<br/>azpiratu baño.</p>            |
| <p>22. Vizcaico ezaugarrija<br/>len zan <i>Lamburuba</i> (sic)<br/>orain esaten jaco<br/>Curutze Santuba.<br/>Izurten zan odola<br/>au ez galtziarren<br/>orain salduten dabe<br/>sarri trago baten.</p> | <p>Gueure ezaugarria,<br/>lentzan lauburuá<br/>orain esaten yaco<br/>Curutze Santuá<br/>Ishurtzen zan odola<br/>au ez galtzearrén:<br/>au yagonic, cirean<br/>guztiac gordeten.</p>        |
| <p>18. Nun dogu Vizcaitarrac<br/>orduco fedia?<br/>Nun gueure garbitasun<br/>eta sinistia?<br/>Orain argaldu dira<br/>alaco vijotzac,<br/>guizonac emeturic<br/>dirudije motzac</p>                      | <p>¿Eztogu, euscaldunac,<br/>lengoen fedea<br/>Aen euskera laúa<br/>et 'aren leguea?<br/>¿Cer: emetu aldira<br/>gutarren biotzac?<br/>Baita ascoc berbetan<br/>¿dirudie motzac?</p>        |
| <p>25. Gure Asaba zarrac<br/>viztu al baleitez,<br/>semetzat ezagutu<br/>naico ez guinducez.<br/>Lotsaz ez leuque naico<br/>autu gu umetzat<br/>ez badoguz jarraitzen<br/>euren lengo oñatzac</p>        | <p>Gure asaba zarrac<br/>biztu al baleitez<br/>semetzat ezagutu<br/>naico ezguinducez:<br/>ez lotsaz artu naico<br/>guinducez umetzat<br/>ez badoguz yarraitzen<br/>guc euren oñotzac.</p> |

26. Ya bada Euscaldunac esnatu gaitian gabizan beti zuzen ta sendo fedian Gueure vizi moduba zucendu bagaric ez dogu icusico iñoz gauza onic	Ea bâ euscaldunac azcortu gaitean gabiltzan beti zucen ta sendo fedean Gueure vicierea arteztu bagari ez dogu icusico iñosh egun onic.
---	---

1819.eko Gabon Kanten eta Pariseko eskuizkribuko zati hauen artean alde handia dago. Zabalaren horietan agertzen diren zenbait gauza berri aipa ditzagun, hala nola:

grafian: k, y, sh

bukaera eufonikoetan: oa, ea, ia, ua

aditz formetan: evazan, dauco etab.

hitzetan: baya, ganean, bâcoa.

Ikus daitekeenez, markinar literatur tradizioa hausten ari da, eta beste bizkaiera nabarrago bat nagusitzen. Bizkai mendebalaren pisua sentitzen A. Mateo Zabala eta Ulibarriren eraginez.

Nola nahi ere, ene ustez, 1819.eko bertsoak askozaz gihartsuagoak dira, Pariseko eskuizkribukoak baino.

*Peru Achurlari alperragaz Yoane necazale cintzoaren arteco berbaicuntzea*-ko bertsoak 1832.eko Gabonetakoak dira eta izen gabe argitaratu ziren. Zabalaren ipuinetan agertzen dira eta bi tokitan dio Pariseko eskuizkribuak Bizentarenak direla.

Gabon Kanten ondoren datoz eta izenpetu gabe dauden arren, Pariseko eskrizkribuak ere bi aldiz dioenez, Bizentarenak dirateke. Baina Zabelak edo dena delakoak, lehen aipatu bertsoetan bezala, hemen ere bizkaiera moda berriko horretan ipini "evazan".

1820.urteko Gabon Kantak ere Bizentarenak dira, behar bada. Aita J. Ignazio Aranak, S. J., *Arte Metrica Bascongada* eskuizkribu argitaragabearen lehen partean, Bizentarenak bertso ongi moldatuen erakusburutzat jotzen ditu. Hona hemen hiru ahapaldi (besterik ez dator). Jakina, ortografia anarkiko horiez da Bizentarena, eta gainera, honek hobeki daki s/z eta ts/tz be-reitzen.

Dieresiaren adibideak honako bertso honetan dakartza:

“Laiño illunen batzuc  
Aguertzen badira  
Ceruco eguskişas  
Aldenduco dira  
Ezagutu esquero  
Gueure uts-eguiñac

Jarichico ditugu  
 Betico atseguinac”  
 (D.<sup>a</sup> Vicenta Moguel 1820).

Geroago: “como ejemplos de versos cadenciosos:

“Maitetzen badituguz  
 Munduco ondasunac  
 Bicitza argal eta  
 Bere atzeguiñac  
 Jaungoicuz gañetic,  
 ¡Zori gaiztociuac!  
 Ciur-ciurrac dogus  
 Su-gar beticiuac...”  
 (V. Moguel D.)

Geroxeago: “ejemplo de sílabas y dicciones suaves, ligeras y dulces”

“soñu eder artian  
 dansugu cantia  
 Gloria Ceruetan,  
 Lurrian bakia,  
 Borondate oneco  
 Guisonen artian  
 Ez-da -bai -da guciac  
 Amaitu sirian”  
 (D.<sup>a</sup> Vicenta Moguel 1820)

Bertso hauek, eta beste idazle eta bertsolarien zenbait J.I. Aranak “como ejemplos de cumplimiento de reglas y buen gusto en la versificación” dakartza.

Bizenta ez zen izan Gabon Kanten moldatzaile bakarra. Hor zen Uliberrri bera ere. Honek bere gutun batzuen (Erro-ri etab.) zuzenketa Bizentaren eskuetan utzi zuen<sup>23</sup>.

Bestek aspaldi esana esanen dut nik ere: komeniko litzatekeela kanta hauek oro bil eta argitaratzea, hots. Baita ahal delarik, finkatzea zein norena den ere.

## 6. Bizenta A. Mogel berraurkezten

Emakume ilustratu, kulturaz jantzia baina ber tenorez apala. Etxe oneko alaba, merkatari dirudun eta euskalzale batekin ezkondua, etxekoandre

<sup>23</sup> Akesolo. *Ulibarriren Gutunliburuaren hitzaurrean*.

honek euskal giroa sustatu zuen Bilbon, erdara gure hizkuntza zokoratzen ari zen garaian. Foruak, euskara eta erlijioa elkarren osagarri eta bereiz ezinezko ziren harentzat. Gazterik jabetu zen euskararen balioaz, baina ez zuen mihi az edo erdal lumaz handipuztu, euskal hegats apalez landu baizik. Gure hizkuntza deus ez edo gutxi jorratutako soroetara (texto juridiko-politikoak, ipuinen kontaketa) eraman zuen, bertsoak ere trebeki jartzen zituelarik.

Euskal literaturaren historian ez apaiz ez mediku ez gizonezko ez den “burjes” lore bitxi honek merezi du gure begiramena. Hark egin zuen bere lana. Besteok gutxienez zor dugu haren lanaren ezagutza, haren izkribuen argitalpena bederen.



## LEHEN ERANSKINA

## XXXVI

VICENTA MOGUEL Á SU FAVORECEDOR EL SAPIENTÍSIMO  
VARGAS

Salud y felicidad

Marquina y Marzo 24 de 1805.

Quisiera ser tan prompta en descifrar las dicciones que V. md. ha fiado á mi corto entendimiento, como soi obediente en contestar á la apreciable de V. md. con que me ha favorecido.

Desde antes de aier, que la recibí, mis meditaciones se han reducido al corto término de once letras, y nada saco hasta ahora en limpio. Miraré mejor; volveré á meditar; pero me temo mucho que no salga cosa de provecho, y no quiero io salir del apuro con un fingido embrollo, sino confesar la verdad como es en sí, desnuda.

Por Dios suplico á V. md. que mis bachillerias estén más ocultas; no las esponga V. md. á la vergüenza. Me sobrecojo de acordarme que mi miserable carta se presentó en la Academia delante de los doctos: ¡Pobre de mí! y

cómo se murmuraría de su autora, que sin saver manejar su pluma se mete á censora. Daria, en fin, que reir, y eso no es tan malo, pues el viejo Isopo, para distraerse de su continuo estudio, jugaba nueces con los muchachos, y V. mds., para alivio de las continuas tareas á que están sujetos, tienen mis cartas por entremés, que con sus ridiculeces divierten sus estudiosos ánimos; buen provecho les haga, que io les perdono quanto digan, pues á mi pluma deven el más sazonado plato (que es el murmurar), segun un adagio, y harto dichosa soi en eso.

No dudo que sabrá V. md. ia, mas no puedo pasar en silencio, la voda de nuestra Xavierita con su primo D. Xavier Maria Argaiç. ¡Qué dichoso! ¡qué feliz será este buen caballerito por su esposa! que si el amor no me engaña, es la más digna criatura de todas las felicidades, que se las deseo muy completas. Quiera el cielo que sea ella tan feliz en la eleccion de su esposo, como lo será él en su posesion.

Los señores Marquineses, con los Ansoateguis, Navarretes..... devuelven á V. md. sus finos recuerdos, y ofrece su inútil, si buena voluntad, la que se profesa su más obligada servidora. (Rúbrica.)

(Original ológrafo.)

150



XXXVII

A SU FAVORECEDOR Y CORRESPONSAL EL SR. VARGAS  
LA MÁS AGRADECIDÁ VIZCAINA

S. y C.

Marquina y Maio de 1805.

Haviendo meditado en quanto mi corto talento alcanza sobre la inscripcion que se sirvió V. md. comunicarme por Marzo de este presente año, saco por legítima consecuencia que nada quiere decir en vascuenze. Solamente la última dición ERT ó EURT es una especie mui común entre nuestros caseros para decir á un buei ó toro *detente*; dicen *ert* ó *eurt*, con la particularidad de que con ningun otro animal ó bestia se usa de esta expresion, sino con el ganado vacuno.

Las otras dos dicciones no tienen ningun sentido de fundamento ó io no comprendo. Puede ser que algo sacase el Apologista si viese la inscripcion; pero no daré io crédito como no se me promueve con mucha claridad. Esta es mi sencilla confesion, y haga V. md. de ella el uso que más guste.

Aseguran que se han dado á la prensa los *Discursos filosóficos. Credere vel non credere periculorum.*

Tengo entre manos un mamotreto con título *Alfabeto Botánico de tres lenguas: Castellano, Vascuenze y Latin.*

151

compuesto por un Botánico de Durango, quien me ha enviado para que io lo corrija, y luego deve pasar á manos de Astarloa para la última correccion, y segun me dice el autor, quiere presentarlo á la Academia. La fiesta es que si empiezo á correjirlo me va á costar el hacer un nuevo Alfabeto, porque está descalabradísimo. Se ha metido á poner nuevos nombres á las plantas que no se han conocido en este país hasta estos modernos tiempos, y con eso ha echado todo á perder, pues es un malísimo vascongado que apenas sabe hablar su lengua. Pienso decirle con claridad mi modo de pensar, y allá se componga.

Permítame V. md. que tome el atrevimiento de pedirle un consejo.

Tengo un hermanito canonista y quiere traer alguna Historia Eccl. buena, moderna, y para esto desea saver si la que ha escrito el Sr. D. Félix Amat, canónigo magistral de Zaragoza, ó la de M. el Abate de Berault-Bercastel, ó cuál otra tiene más aceptación entre los savios. Me ha parecido que ninguno mejor que V. md. podrá decidirle, ia que está dudando cuál ha de elegir, y quisiera que tubiese la aprobacion de V. md.

Espero que me dispensará V. md. de esta incomodidad.

En todo este mes tendremos aquí á los Sres. Condes, y será regular que se celebre en Munive el desposamiento de nuestro Xavieracho.

Páselo V. md. bien, y disponga de su más reconocida servidora q. s. m. b.—*Vicenta Moguel.*

(Original ológrafo.)

## 2. ERANSKINA



EL DOCTOR PERU ABARCA

CATEDRÁTICO DE LA LENGUA BASCONGADA

EN LA UNIVERSIDAD DE BASRTE,

*Dialogos entre un Peustico solitario bascongado, y  
un Barbero callejero llamado Masu Juan*

*Compuestos por*

D. JUAN ANTONIO DE MOGUEL

Y URQUIZA

*Cura de la Villa de Marquina en Vizcaya*

*Ademas, contiene este Libro, varias selectas de las Oraciones  
de Ciceron; Alessandro, &c. y Fabulas*

*traducido todo al Basconce Vizcaino por Dns J.  
Moguel, de cuyos originales papeles he copiado  
con todo cuidado yo Eleuterio de Pasorabal*

AÑO DE 1808.



4. ERANSKINA


IPUI ONAC,  
CEINTZUETAN ARQUITU-  
CO DITUZTEN EUSCALDUN NE-  
CAZARI, TA GAZTE GUCIAC ERA-  
CASTE EDERRAC BEREN VI-  
CITZA ZUCENTZECO.

Ematen ditu Euscaráz arguitará umc  
eta necazarientzat

*D.<sup>a</sup> VICENTA ANTONIA MOGUEL*  
*ta Elguezabalce.*

*R. 1804*

DONOSTIAN:



Antonio Undiano liburuguillearen echean.  
1804 garren urtean.

*Beaz becela.*

## 5. ERANSKINA

16.  
 Iruna; uate arcuat zaxiñ nabee, händacatcan leguer  
 amün laga nugo. Nor bakt, neuae uatē onētā bax quūm  
 neutram orbi uero illēsequitā, ta ordābon omā nūntrām  
 arō cura castān, ta dīu quichigāstī redduo ex nondubā.  
 Etā omīn exuēpō deūt aquitāca, ta omīn gauza ex nava  
 la ecertācō, icurācā ecūndōdela queijago? Gomētōu  
 beī nīre gantētarūncō equitādāuicā; exuēquī izān  
 nagū; ta ex onombēte uerbaa zapaldu.

Ipsum onec exuētōdare arguēro gāntē  
 exuētān bax quūm uandānān, ex fūstā exuētā  
 bax mūuētāronīc zaxitān ecin dābonīc bēstēn  
 egō bānē. Ugaribac utubāx dītubēla ondo ta exuē  
 quī-ōstēn, edo oguētūcō zaxitāntān tējālac, ta bax  
 quūmāc izān dīxīnāc, ex bōtā campōra atēnīc atē  
 oguēja bīllātūterā; etā exuētōc quēijago gāz umīac bax  
 deūtēcēla lōtān gōndē, exuēquī omā exuētūcō, ta bax tēn  
 izān fūnāro zax bīxīc ecin dābonā.

Ipsum 17.  
 Eibi, ta Ugariāzīfūmā.  
 Equū ebōn bēn bābījāc bātūmā bāt tējāgāc  
 cītūbēn cūnōnātīān uerba onec. Cerdā quēī jārōtā  
 jaxūnā? Equū on bāt ex dāuāgū; bōtī vīcī gārā quēuā  
 gōgōmīān; gāgōz axānīfōz īnquīrātūxīc; Chacūmāc, ta  
 fūzīōn dē quēī atēnīc dābīlōz alān baxuētān, cētān fūnā-  
 xētān; dōndē quēī bēdītūcō baxūbāc. Ostēnā, quēī cētācō  
 ta baxūmāc ex uētācōnētān, ex uētācōnētān cātī bē. Chacūmāc  
 Onātrētātī. Jaxōn bāgā nē, zaxītēcētācā, ecin jaxōn jōgū  
 ecin bīlōrā bāgā. Chaxāz dāuācūmāc baxō-chacūmāc bēnī  
 jaxō. Cēmbāt quēuāc lāgūn jaxūmācīā Chacūmāc, ta fūnā-  
 xētān zaxītān? Cēmbāt bēnīquān illīc quēuātā  
 55 andjā, Nūbā, ta quēīcā, exūlōn dābēn zaxāz ta



berdiniaz, eguiniako ezarrietan...? Au ezda vici oritur  
 espada bete eriotiaren atxarriaren ibiltze. Ohi dituen  
 kate guztiak burubak. Ebi bati xa; ito uritan, ta gurendi betio  
 guztiak; ta isasia. Guabaxi eben aben eguiniak, ta man-  
 etaren. Hiritalen equi, edo ondora. Oxiu nun ducoren  
 celan. Eguzerijo Segui, edo eli bat suaxeti botatien burubak  
 erax coxa. Biltzarenic erax icurita. Oxiu aben, denuc erax  
 ebala kabin estio bateg; Ezgan qu burubak. Biltzarenic  
 ducunuc gaganic iguer eguiten qu bane biltzarenic  
 baturu. Ebanan ducunuc erax coxa: etorrico gacur.  
 bira bada egan etrago baturu; ez dicit betiuc gacur. Duce  
 ponce onandiac eraxi oi dita. Guaran bada burubak  
 galdu bage etorrigarian vici.

Ypuen onec ducunuc dicit, guzren ta erax  
 icurita, eraxqui, ta eraxen bage, erax biltzarenic  
 seu eraxetan debiltzarenic. Ta dicit equi gacur biltzarenic;  
 beti igon biltzarenic, ta gacur, jauri beti. Longa gacur  
 longuicunon eraxetan. Una etan dicit gacur ondora.

Ypuen 12<sup>a</sup>

Otro, eta Anchumiarra

Nuntz bateg eraxi cortan beragac anchumie bat,  
 ta etan uran bira eben. Ta bage bage, gacur biltzarenic  
 biltzarenic. Viten bage beragac dicit anchumiarra;  
 bage, eraxiga mau abe, gacur, ta erax jauri bat  
 daucaque, cein dan Oxiu. Etorri oi da erax ondoreta  
 ed, ta topetan bada nundi vici cortan, erax dicit  
 ez gacur. Eban bada, ni bage nacen erax  
 eraxi erax, dicit dicit, ez eraxi dicit; dicit dicit  
 ta erax dicit, cein dicit eraxi erax dicit  
 su, neu nabela. Viten eben dicit gacur dicit erax  
 nic. Eban bage guzren Oxiu dicit erax dicit  
 ta erax eraxi bage bai. Eban dicit erax dicit,  
 edo bage. Erax dicit gacur Anchumiarra guzren on-  
 xen

5. ERANSKINA

30<sup>o</sup>  
 eracutsi bear muquertasunic, gueróra zar  
 tzan: egon. baño besteric ecin duenean.  
 Echeco buruac artu bear dituztela ondo  
 ta erruquiz morroi, ta mirabé, zaartu ar  
 tean bearguiñac izan diranac, ez: bot  
 campora ateric: afe: oguia billatzera. Er  
 arrazoi gueiagorequin umeac bear diotel  
 lotsea gorde, amorioz itz eguin, arpegu  
 oná eracutsi, ta laztantasunez beguirat  
 guraso zaar bearric ecin dutenai.  
 Zaar necatpei ondo beguiradu;  
 Bear eguiñac ondo saristatu.  
 IPUB. XVII.  
 Erbidt p. ta. Iguelao.  
**E** Guinzuten bein Erbiac beren artea  
 batzar, edo bilcuia, ta igaró citur  
 ten itz oec: ; Cer da guri guertatzen za  
 guna? Egun on bat ez daucagu: beti i  
 guera quezca pogorrean etsaiz inguraturic  
 Chacur: ta guizonac gure billa dabilza  
 ala basoetan, nola soró, ta ibarrétan.  
 Gorde naiagatic buruac otatza; guisast  
 ta toquiric ezcutuenetan, arquitzen gar  
 tuzt.

31<sup>o</sup>  
 tuzte chacurrac onatzetatic. Jesten ba  
 guera garitzetara, ecin jan degu ceer bel  
 dar gabe. Gaveraco ere baditugu baso  
 chacurrac, Aiceriac, ta oec dirá Eizaritio  
 guiztoenac. ; Cembat gure lagun erori dif  
 ra Chacur, ta Aicerien ortzetan? ; Cem  
 bat beingon itzen dituzte guizonac erre  
 mienta suguiñequin? Au ez da vici izatea,  
 batjean beti icaraz erioztaren atzaparre  
 un ibiltzea. Obe ditugu bota gueren bu  
 ryac. ibai batera, itó uretan, ta quendu  
 betico. Jarritasunac. Erabaqui zuten ala  
 guitea, ta joan eiran ibai bateco egui,  
 edo ondora. Dacuste usté gabe, nola an  
 arquitzen zan igueltegui bat, gucia icara  
 re, banatu, ta bota cituzten beren bu  
 ntu uretara. Orduan esan eioen beste la  
 rri. Erbe batec. Ez guera bacarric gu  
 beldurrean. vici gueranac. Badira bai go  
 baño ere beldurtiagoc. Ona nola gu ecui  
 ta beste gabe igues eguin, ta bota di  
 tzen buruac ibaira Iguelchurac. Ez de  
 gu erregatu bear: etorrico aldía egun  
 guetac guretzat; gaitzic dituzte  
 beren muac, ta aldiac. Goacen bada  
 tuzte leuetara, ta vici guitean nola al  
 egun

egun obeagoen zai. Ala eguin zuten.

Ipui onec arguitzen ditu Guizon, ta Andra ernegari, irritu, ta paque guchi-coac, ta beren buru, ta vicitzaco atseca-beai gaitziritzic, erioitza billa dabilzina. Ez dirá egun guciac berdiñac; gaur lecu beetuan dagoana, egon diteque egun guchiren barruan; goraturic: ta negu gogorrac ecarri oi du udaberrí.ederra. Jarri gaitéan. Jangoicoaren. escúetan.

*Aurpegi eman bear: diogu gaitzari,  
Beguiratuta etorríco dan onari.*

### IPUI XVIII.

*Orsoa, ta Irudia:*

**C**Ebillela. Orsoa basoan, arquitu zue Irudi, ichura uts; edo imajina bat Aru, ta egonzan goi ta be beguirá, ta dioe esan zuela. O cein edesra. cerán! bñá ez dezu cenú; ez garuñic.

Ipui onec lotsatu bearditu edertasun-utsean biotza ipiniric daucatenac. Ede adingabeco; ta argui laburrecoa da cen-zunic ez duen Irudi uts baten guisacoa.

*Edertasuna da egun laburrecoa:  
Jaquituria vicitza guciracoa.*

IPUI

### IPUI XIX.

*Eulia, eta Mandoa.*

**M**Ando batec ceramala Burdia Jarri-citzaion burtolean Euli gogaitgarria, ta diotsa: Mando zatar ta astuna, abill arinago; bestela nere eztenarequin odoldu ta pizcortuco aut. Aserratu citzai-on Mandoari Euli cital batec ain arro itz eguin bearraz. Eranzun cion bada: ; ó piztia cital, quiratstu, ta gogaitgarria! Ecin gaitzic eguingo diat: ala ere, ez cidac ar-dura andiric ematen ire ezten charrac ateratzen bacidac odol apur bat. Nere gañean dijoan Mundazai onen zigorrac bel-durrago eguiten naitziac. Onen cigorrada, ta ugal orapillotuac ematen diztan zartadac, atera oidizquite zambro andiac. Au bai dala beldurgarria.

Ipuia eracasten dióe Andiquiai, badutela cer beldur izan nondic edo andic.

*Cbiquiac dira noiz bait arrotzen:  
Ta Andiac dute ernegatzen.*

C

IPUI



## L U I S D E B O R B O N

por la divina Misericordia Presbítero Cardenal de la santa Iglesia Romana, del título de santa María de Scala, Arzobispo de Toledo, Primado de las Españas, &c. &c. á mi muy amado é Ilustrísimo Cabildo de mi santa Iglesia primada: al Presidente y Vocales de la Gobernacion de mi Arzobispado; á mis Vicarios generales y demas Jueces eclesiásticos y Fiscales; á mis Visitadores de parroquias; á los Curas párrocos de todas mis feligresías; á todos los Sacerdotes de mi venerable Clero Secular y Regular; á todos mis diocesanos y habitantes en el territorio de este mi Arzobispado: Salud en nuestro Señor Jesucristo, y mi amorosa y pastoral bendicion con las siguientes palabras de mi cordial afecto.



## L U I S D E B O R B O N,

Jaungoicuaren onerechiz Erromaco Elexa Santuco Cardenal, Santa Maria Scalaren icenecura, eta Arzobispo Toledocua, Españaco Lelencarija &c. &c. neure Elexa lelercari onetaco Cabildu gustiz maitiari; Arzobispau onetaco Aguintaritziazen Nagusi, eta Aozdar edo Vocalei: neure Vicarijo baquida edo general, eta ostiango Elexaco Aguintari, eta Ciricari edo Fiscalei: neure Elexa-icuslei, eta Arimazain edo Curei: Sacerdote Abade, eta Erligioso veneragarri guztiei: gure Arzobispauco barrutar, eta an vicarioran guztiei: Osasuna Jesucristo gure Jaunagan, eta gurasosco amodijuaen bedeincacinoia, viotz cintzuaeren verba oneccaz.

**E**ntre los cargos de mi delicado é importante ministerio Pastoral ha ocupado siempre el debido lugar en mi corazon procurar inspirar en todas las almas, fiadas á mi cuidado el espíritu de caridad y union fraternal, propia de los engendrados en nuestro Señor Jesucristo por el santo Bautismo y por la fé del Evangelio, que produce la unidad en toda la Iglesia, por la cual, los que se glorian en pertenecer á ella, se miran y tienen recíprocamente como miembros de un mismo cuerpo, no solamente en cuanto dice relacion á la eterna bienaventuranza, si tambien por lo correspondiente al órden civil, para contribuir á la prosperidad comun y á la personal, que no puede mas fácil y directamente lograrse por otro medio, que por el de la caridad del Evangelio. Así pues, amados Sacerdotes, cooperadores de mi ministerio, y diocesanos míos, siendo yo deudor á todos vosotros, y aun mas á la Iglesia Católica, Apostólica, Romana, que abraza el estado todo de la Nacion entera, me ha parecido necesario hablaros en unos tiempos y circunstancias en que el silencio de los prelados no tendria fácil escusa. No puedo ciertamente menos de desahogar los afectos de mi paternal corazon, y

**N**eure Arzaintzaco lan, eta eguin biarren artian gurijen tiratu dabena beti nire viotza gan da, neure ardurara dagozan arima guzrien goguan sartutia alcarreganaco amodijun, anaetasuna, eta bat eguitia sortu diran Jesucristoren Bautismo Santuban, Evangelimaren Siniste edo Fediagaz, cenece eguiteu dabene Elexiaren batasuna, ceñetan gozatu ten diran berari daocazanac, eta beguiratuten denpene alcarri gorputz baten zatije leguez; ez bacarrie betico zorientasunari daocazan gauzetan, baita bere Errico zucebidetan, lagundubaz alcarri guztien, eta bacocharen aurrerapenetan, cein jaristeco, ez dago vide uretagoric Evangelijuaren onerechi edo Caridadia baño. Alan bada Sacerdote neure lanetaco laguntzalliac, eta neure artaldece arima guztiae, izanic ni zorquide zubu, eta arabere gurijago Erromaco Apostolubere Elexia Santa guztientzacuari, ceñetan bat eguiten diran Jajoterri edo Naciuece guztiae, ustetizan dot zubei verba eguin biarra, denpora onetan, ceñetan cein achaguijane eugit leijan Buru nausijece isiltasunac. Eguinaz cein gorde nei neure gurasozece viotzan samurtasuna, zuceulu haga zubece gana. Az zainarece verbia, iguitu eraguitece bacochac

( 11 )

tud en el entendimiento, consultando siempre á los sabios de buena fé; subordinacion al Gobierno; sumision á los que rigen sus ministerios; amor á la *Religion*, á la *Nacion* y al *Rey*; constante adhesion á sus máximas y á la *Constitucion* política que ha jurado, y de la que nos dice será siempre su mas firme apoyo. Haya en todos reflexion para pensar, consejo para obrar, confianza recíproca entre todas las clases y personas, como medios los mas conducentes para conseguir la felicidad espiritual y temporal, que deseo y pido á Dios para tod :

Dada en Madrid á 15 dias del mes de Marzo de 1820.

*L. de Borbon Cardenal de Scala,  
Arzobispo de Toledo.*

Por mandado de S. Ema.

*Lic. don Manuel José de Gallego.*

amodijua Erliginoe, Jaioterri, eta ERREGUE-  
RI; eraaspen sendua gueure ERREGUEC  
juramentuz autu daben *Constitucinoiari* ce-  
negaitic dirauscun bera izango dala abe  
arriric senduena. Izan bada veguiratubac,  
eta artu oneen erechi edo *Consejuba*, eu-  
qui alcarreganaco compijantzia, andi ta  
chiquijeen artian, cerren oneec dirian bide-  
ric ciurrénac jaristeco arimaco eta luurreco  
zoriontasuna, cein opadetsubedan, eta esca-  
tuten deutsadan Jaungoicuari guztientzat.

Emon zan Madriden Martijaren 15 eta  
1820 garren urtian.

*L. Borbon Cardenal Escalacua,  
Arzobispo Tolcedocua.*

Bere And.<sup>en</sup> aguinduz.

*Lic. don Munuel José de Gallego.*

TRADUCIDA DEL ROMANCE AL BASCUENCE, POR DOÑA VICENTA DE MOCUEL.

EN BILBAO: POR D. PEDRO ANTONIO DE APRAIZ. AÑO DE 1820.

## **AZKOITIKO UDALETXEAN, 1982.EKO EKAINAREN 13AN IRAKURRITAKO MAHAINGURUAREN LABURPENA**

Azkoitiko Udaletxean Bizenta Mogelen 2. mendeurrena ospatuz emakumeari buruz egindako mahai inguruaren berri.

Azkoitiko Udaletxean 1982. Ekainaren 13an.

Atzo Bizenta Mogelen 2. mendeurrena ospatuz "Emakumea Kultur-gintzan" mahai ingurua izan zen. Bertan parte hartu eta erabili zituzten gaiak hauek dira:

Juli Berrojalbiz	Mahaiburu
Miren Azkarate	Emakumea Euskalari
Izaskun Barriola	Emakumea Irratian
Karmele Esnal	Emakumea Irakasle
Arantxa Urretavizcaya	Emakumea Idazle
P. Arregi	Moderadore
M. P. Lasarte	Idazkari
Cristina Mardaras	Bertsolaria
Reme Larrañaga	Azkoitiko Kultur Elkartekoa

Juli Berrojalbizek sarrerako hitzetan ekintza honen helburuak aipatu zituen eta ondoren Arantxa Urretavizcayak bere txostena irakurri.

Arantxa Urretavizcayak, emakumea literaturan, egin zuen. Emakume idazleaz mintzatu zen eta beraren esperientzi pertsonala abiapundu hartuz, bertatik sortutako kezak garbitzeko egindako erreflexioaz aritu zen.

Emakumeak literatur historian lotsati ageri direla dio, beraien izena izkutatuz edo agian Bizenta Mogelek egin zuena, barkazioa eskatuz.

Lotsa eta gutzi euskal munduan azaldu dira batzuk, baina gutxi.

Bi puntutan bil genitzake Arantxak esandakoak:

1. Emakume idazle gutxi eta arruntak.
2. Hau honela izanik, gertaera honen arrazoiak.

Badirudi, zioen, Euskal Herrian emakumezkoak inguruko kulturatan baino garrantzi handiagoa izan duela, bai baina etxe barruan. Eta horrexegatik, gutxiago sentitu duela gizarte osoan pertsona heldu baten eskubideak erreibindikatzeko premia.

Europa gehiengan emakume idazleak gizartearen goi mailetatik atera direla eta, Euskal Herriko gizarte maila gorenak, ez direla Euskal zaletasunaz nabarmendu eta Euskal Herriko industrializazio motak ez dioela emakumeari oso berandu arte lanik eskaini.

Virginia Woolfek esaten omen zuen “emakumeok gela bat eta bizitzeko haina diru lortzen ez dugun bitartean, ez dira idazle asko sortuko”.

Hau honela izanik, andereñoak emakumeak dira soldata bat jasotzen dute baina idazle gutxi dago. Arrazoia nahiko sinplea da: ikastolen kondizioek jaten dizkietela ahalmen eta denbora guztiak, baita ere etxean lan egin beharrak.

Halaz ere, Bixenta orain dela 200 urte ausartu bazen, guk ez dugu barbaziorik eta eragozpen guztien artean aurrera jarraituko dugu.

Gero, Miren Azkaratek, Emakumea Euskalaritzan txostena agertu zuen.

Emakumea Euskalaritzan Unibertsitatearen haritik iritsi dela, zioen eta nahiz gizon, nahiz emakume bi baldintza bete behar dituztela: “filologia mailan prestakuntza egokia eta, euskarari dagokionez, ondo jantzia izatea”.

Lanerako dei berezi bat egin zuen eta non lan egin zitekeen aipatu:

Euskaltzaindiaren barnean:

- a) Euskaltzaindiaren barruan “Gramatika Batzordea”.
- b) “Dialektologi Batzordea”, euskararen Atlas.
- c) Fonetikaren alor osoan.
- d) Hitz berrien sorketari dagokionez.
- e) Lexikoaren mailan, hitzen familiak, sinonimoak, antonimoak.
- f) Herrietako euskara motak ere azter daitezke.

Eta honela bukatu zuen:

“Prestakuntza egokia behar dugula filologia arazoetan murgiltzeko, baina euskara ongi menderatzearen beharra ere. Bi alorretan maila egokira iristen ahaleginduz, bietan etengabe aurrera jotzen saiatuz.”



**BIZENTA MOGELEN 2. MENDEURRENA  
OSPATUZ, EMAKUMEARI BURUZ  
EGINDAKO MAHAINGURUAREN  
TXOSTENAK**

Azkoitia, 1982-VI-12



## EMAKUMEA IRAKASLE

*K. Esnal*

Irakasleek urte gogorrek pasa dituztela, zioen. Gipuzkoan, Elvira Zipiari aipamen berezia egin behar zitzaioela eta, Bizkaian, Juli Berrojalbizi.

Andereñoen artean idazle gutxi dagoela aipatzen da, zioen baina, andereñoek denbora gehiago pasa izan dutela ikastolako gaiak prestatzen eta eskuz idazten baino, eta orain berriz nahiz eta textu liburu gehiago izan eta hori lagungarri gerta, goitik behera ezarritako programekin itota dabiltzala.

Nahiz eta andereñoek idatzi ez, ikasleengan idatz zaletasuna sortzen saiatu direla eta haurren artean ipuin idazle politak badituztela, zioen eta andereñoen baitan dagoela hori landu eta aurrera eramatea.



## EMAKUMEA IRRATIGINTZAN

*Izaskun Barriola*

Radio San Sebastianen lan egiten du, oraindik nahiko hasi berria, profesionaltasunik ez eta kondizio txarretan dabiltzala, zioen; gertuan, irakasle-maisu-maistrak falta omen dituzte eta, askotan, norberaren intuizioaren aginduz lan egin behar.

Informatiboak euskaraz ematen dira, baina askotan besterik ez eta horiek nahiko hotzak gertatzen dira. Eguneroko bibentziak, sentipenak ez dira irratira eramaten, baina honen atzetik dabilta.

Umeez ikastolan zatiketaz euskaraz egiten dituzte, baina bereaien sentipenak erdaraz esan, eta ikastolan umeez idazten dituzten kontu politikak ba omen daude, eta horiek dramatizatu eta irratira eraman daitezkeela, zioen.

Aurretik lan egin dutenen aipamena egin zuen:

M. Dolores Agirre.

Loiolako irratian dauden bi Itziarrena.

Txaro Arteaga eta, beste zenbait.

Bixenta Moglek 22 urterekin lehenbiziko liburua idatzi zuela, jakin zue-nean inbiri sentitu zuela, zioen; baina hizkuntza hitzeginak zer garrantzi duen garbi daukala eta aurrera jarraitzeko asmotan, oraingoz behintzat.

Emakume bertsolari baten aurkezpena egin zigun:

Cristina Mardaras, Iurretan jaioa, eta Zornotzako eskola aurrean irakle dena. Durango aldeko bertsolari eskolan hasi zen ikasten, baina txikitandik bertsozale amorratua: Enbeita, Lopategi, Azpillaga eta beste batzuren entzule amorratua; eta Izaskunek egindako elkar-hizketa txiki baten ondoren, bat bateko hiru bertso kantatu zizkigun, berak zeukan bildurra agertuz. Baina zeukan apurra emateko asmoz, eta beti sukaldea eta ezkaratzea izan dela emakumeen baratza, zioen; baina oraingoan, berak eta beste batzuk beste baratzak ere badituztela, erakutsi digute.

Ondoren, Reme Larrañagak Azkoitiko Kultur Elkartekoak, Bizenta Mogel ipuin lehiaketaren berri eman zigun, eta berak egindako olerki batzu irakurri zituen:

- Baserriko atari bati.
- Bidasoko lurrari.
- Izarraitzi.

Eta, elkarrizketa luze bat egin ondoren, bukatu zen mahaingurua.

## EMAKUMEA IDAZLE

*Arantxa Urretavizcaya*

Izenburu batean emakume hitzaren atzetik kultur izen bat jartzen den bakoitzean, zerbait errebisatu nahi dela adierazi nahi da, disziplina bat beste ikuspuntu batetik aztertu nahi dela. Emakumea eta historia, emakumea eta antropologia, emakumea eta literatura. Emakumeok duela hamar edo bost urte sortu izan bagina bezala.

Eta gizartearen maila batean horrela da: gure gizartean oraintsu hasiak gara emakumeok pertsona heldu izateko dugun eskubidea erreibindikatzeko. Eta oraindik oraintsuago praktikatzeko.

Bistan da, gauza bat dela literaturaren historia (eszepzio eta guzti, gizonetzkoek egindako literaturaren historia) eta beste bat, literatura eta emakumea, gaur lantzen tokatu zaidan gaia.

Eta txosten honen helburua mugatzeko, gauza pare bat esan beharra dago, alde zuzenetik. Bat, tentazioa handia bada ere, ez naiz ahozko literaturaz mintzatuko, ezta emakumeok (zenbaitek behintzat) musa inspiratzaile bezala izan dugun paperaz. Emakume idazleaz mintzatuko naiz, bakarrik. Eta bi, txosten honen egilea ez da ikertzaile ez historiadore; gehienez jota ere, idazle. Eta neure esperientzia pertsonala dut abiapuntuz; esperientzia eta bertatik sortutako kezka garbitzeko egindako erreflexio apala eta sukartsua.

Beraz, eskasiaren eskasiaz egindako txosten baten aurrean zaudete. Eta eremu mingarri honetan aurrera egin baino lehen, Bizenta Mogel aipatu nahi dut. Gaur idazle honen bigarren mendeurrena ospatzen ari garela eta *Ipuin Onak* deritzan liburuan egileak berak jartzen duen hitzaurreak gaur ikutzen ari garen gaia ondo argitzen duelako.

Ipuin liburu hau argitaratu zen momentuan, hemeretzigarren mendearen hasieran, jaio ziren Ingalaterran emakume nobelari famatuak, Bronte ahizpak, apaiz baten alabak. Beraz, Bizenta bera bezala, elizaren itzalean ikasiak.

Ohiturak ematen zion Bizentari gertakari eskandaloso hau suabizatzeko irtenbide bat: liburua gizon baten izenaz argitaratu. Ingalaterran bertan, Emily Brontek berrogei urte beranduago horrela argitaratu zuen lehen nobela. Frantzia eta Espainian ez dira ere mota honetako adibideak falta.

Bizentak ez du ordea izena ezkututzen. Hori bai, lehen lerroetan barkazioa eskatzen du ausardiarengatik. Harrez gero, ia bi mende pasa dira eta gauzak ez daude zeuden lekuan. Aldatu egin da egoera, baina ez behintzat, nik nahi bezain arin.

Lehen aldiz idazle-bileretara azaltzen nintzenean (hamar urte baino gehiago pasa dira) ez nuen barkaziorik eskatu behar bertako emakume bakarra izateagatik. Baina ez dut sekula hainbeste gizona ez ospetsuren kuttuna izateko susmoak ematen zidan hotzikara superatu. Obsesio bat da, konforme, baina ez nirea bakarrik. Itxura desberdinez, George Sand-ek, Bronte ahizpek eta Bizentak arrisku berdina zuten: beraien lana ez zen sekula balore literario hutsen arauera irakurriko. Emakumeak gara; beraz —literaturaren barruan beste zenbait alorretan bezala— ez gara pertsona normalak.

Noski, kuttun izate honek baditu alde tentagarriak: lekurik hobereanean esertzeko ahalmena duzu eta orain bertan, inolaz ere mezpretxatzen ez dudan moda baten eraginaz, agian edozein gizona ez baina eragozpen gutxiagorekin argitaratu dugu emakumeok eta merezimendu eskasekin Euskaltzaindiak hitzaldi bat emateko aukera eskainiko dizu.

Bizenta ez da, noski, euskal letretako emakume bakarra. Badago beste izen aipagarriak: Tene Mujika, Julene Azpeitia, Minaberri, Amaya Lasa. Eta zahia nahiko zabal egiten bada, beste dozenatxo bat. Kontu batean behintzat badugu euskal literaturan ari garen emakumeok Europako idazleekin paretasunik. Emakume gutxi izatez aparte, ez dago gure artean Detxepareren, Lizardiren, Arestiren edo Saizarbitoriaren maila betetzen duenik. Noski, gainerantzeko idazleek, idazle normal diren gizona ez betetzen ez duten bezala. Arrarotasun mingarri honek ez digu kalidadez gehitzen.

Baina gure inguruko literatura guztietan emakume gutxi baldin badago, gurean are proportzio eskasagoan aurkitzen dugu. Edozein irakurle setatsuk estadistikarik gabe ikus dezake hori.

Puntu honen azterketak merezi du ni baino ikertzaile sakonagorik. Baina esplikazio oso eta bete bat ezik, kezka honek eman dizkidan pentsagaien harian topatu dut arrazoi zintzo pare bat.

Batetik, eta hitz ponposoegiak erabili gabe, badirudi Euskal Herrian emakumezkoak inguruko kulturatan baino garrantzi haundiago izan duela. Bale, baina etxe barruan. Eta agian horrexegatik gutxiago sentitu du gizarte osoan pertsona heldu baten eskubideak erreibindikatzeke premia.

Bestalde, Europa gehienean emakume idazleak gizartearen goi mailetatik atera dira, gizona baino gehiago. Eta Euskal Herriko gizarte maila gorenak ez dira euskaltzaitasunaz destakatu.

Eta mende honen hasieraz ari baldin bagara, idazle gehien giro hiritarrak mintzatzen bagara, aipatu beharra dago Euskal Herriko industrializazio motak ez diola emakumeari oso berandu arte lanik eskaini. Sinplifikazio



gehiegizko batez esanda, textilgintzak edo ehungintzak burdingintzak baino lan gehiago eman dio emakumeari. Eta soldata bat irabaztea ez da anekdota bat. Virginia Woolfek esan zuen bezala, emakumeok gela bat eta bizitzeko haina diru lortzen ez dugun bitartean, ez dira idazle asko sortuko.

Gaurko egunak, berriz azaltzen du mantxo arakatu behar den fenomeno bat: andereñoak. Emakumeak dira, soldata bat jasotzen dute eta euskara menderatzen dute. Zergatik, bada, ez da andereño idazle gehiago azaltzen? Amaya Lasa eta Asun Landa bi adibide dira. Baina ez goiko galdera hori baztertzeko haina arrazoi. Gaur nire mahaikide den Karmele Esnalek esaten duenez, arrazoi nahiko sinplea da: andereñoek ez dute literaturarako denborarik, ikastolen kondizioek jaten dizkiete ahalmen guztiak.

Esplikazioa baliagarri da, baina pedagogiaren premiaz aparte, badago denbora jaten digun beste zerbait, andereño izan ala ez: gaur egun etxetik kanpo lan egiten dugun emakumeok ez dugu horregatik etxeko lanak gutxitzerik lortu eta egunak hogeitalau ordu ditu.

Dudarik gabe, denbora da andereñoei eta andereño ez garenoi falta zaigun zerbait. Nola lortu ahal du emakume batek idazteko denbora lortzen lagunduko dion gizonik?

Baina, halaz ere, zerbait falta zaio esplikazio honi. Denboraz aparte, beste zerbait falta zaigu gaur egunean idazteko sena sentitzen dugun emakumezko: ausardia, ambizioa, konfiantza. Ez da aski gela bat eta soldata bat. Beste independentzi sakonago eta zailago bat falta zaigu.

Hainbeste mendez esan zaiguna nola-hala sinetsi egin dugu eta ez gara debekatu izan zaigun zenbait alor jorratzera ausartzen. Ez dugu gure buruarekiko konfidantzarik. Ez duzue balio, esan zaigu. Eta emakumea kontzeptu orokor bat bezala kontsideratzen dugunean, ez dugu gaur ezgaitasun hori onartzen. Baina bakoitzak bere buruarekiko bai. Hor dago koska inportante bat.

Hala ere, Bizenta orain dela 200 urte ausartu bazen, guk ez dugu barkaziorik. Eta gure handicap guztiak kontuan izanda ere, geroak beldur honen kontua eskatuko digu idazteko sena dugun emakumeoi. Kalidatea behar dugu, emakume idazle onak nahi ditugu. Baina kalidatea ez da zerutik erortzen.

Txomin Agirrek Bizenta Mogelen *Ipuin Onak* liburuari hogeigarren mendearen hasieran egindako hitzaurrean frase hau idatzi zuen: "Asi, Euskal Herriko alabak; ekin lanean, saiatu euskararen alde, lagundu guri". Villasantek, berak, 1975-ean, frase horrekin bukatzen du "Emakumea euskal literaturan" artikulua.

Hasi gara, ekiten diogu lanari eta euskararen alde saiatzen gara. Hori bai, ez dut uste propio gisonezkoei laguntzeko asmoz.



## EMAKUMEA EUSKALARITZAN

*Miren Azkarate*

Euskalaritzaren barruan emakumearen lanaz hitz egiterakoan uste dut berezitasun bat aipatu behar dela eta zera da, emakumea euskalaritzara Unibertsitatearen haritik iritsi dela, alegia.

Euskalaritzan iharduteko edozeinek, nahiz gizon nahiz emakume, bi baldintza bete behar ditu nire eritziz: filologia mailan prestakuntza egokia eta euskarari dagokionez ondo jantzia izatea. Duela hainbat urte, batez ere apaizak ziren horretara iritsi zitezkeenak —salbuespenak izanik ere—. Gauza jakina zen familia arruntetako semeei ikasketak emateko aukera bakarra Seminarioa izaten zela gure artean. Eta mutil euskaldun haiei beren hizkuntza lantzen eta aberasten erakusteko prest zegoenik ere aurkitzen zuten ikastegietan. Diodanaren frogarik argiena euskal kulturaren askotan aipatu izan den apaizgaien lehenetasun eta nagusitasuna da. (Eta Euskaltzain osoen zerrenda bera ere adierazgarri samarra delakoan nago).

Baina laikoek edozein hizkuntzatan filologia mailako ikasketa eta ikerketak egiteko behar den prestakuntza berezia Unibertsitatean lortzen dute. Hala gertatu da gure herrian ere: Unibertsitateak sortu eta indartu diren heinean azaldu dira laikoak euskalaritza, emakumeak ere tartean direlarik.

Noski, Unibertsitateak ez dira azken 20 urte hauetan sortuak, lehen ere baziren, baina garaiko seme-alaba izan ohi garenez, eta emakumea goi mailako ikasketetara, albuespenak albuespen, azken urteetan iritsi denez, euskal emakumearen presentzia azken urteetan nabarmendu da filologia arloan.

Hala ere, Unibertsitatea bera besterik gabe ez da aski. Goi mailako prestakuntzarekin batera euskaraz trebatzea eta euskararekiko ardura eta konpromisoa ere beharrezko dira. Alde honetatik uste dut Unibertsitateak izatea alferrikakoa zatekeela, 1955 inguruan lotsati

antzer, gero indar handiagoz, euskarak berbizkunde bat ezagutu izan ez balu: bai literatura mailako berbizkundera, bai ikastolen mugimendua posible egin zuena, bai geroxeago Euskalduntze eta Alfabetatze kanpainak. Mugimendu honek nire eritziz, jendeari bere ama hizkuntzan gaitzeko aukera emateaz gainera, zenbait lagun hizkuntzaz beraz kezkatzer, eta hizkuntza bera landu eta aztertzer, bultzatu zituen. Alor honetan ere, lehen esan bezala, ordurarte apaizen inguruan, Apaizgaitegi edo Seminarioetan egiten zen euskara mailan egin zitekeen lanik handiena. 1960 inguruan euskarari buruzko kezka hiritartu eta hein batean laiko bihurtu zela esango nuke.

Konturatzen naiz orain arte esandakoen arauera ez dudala emakumearen egoera bereziki aztertu, baina nire eritziz euskalaritza lanean zaila da gizonarengandik bereizten. Arazoa zera litzateke, duela gutxi arte ez duela Unibertsitaterako bidea zabalik aurkitu. Baina gaur egun ikaslegoari begiratzen badiogu behintzat, berdintsu aurkituko ditugu neska eta mutil Filologiako fakultateetan. Dena den, datu honek besterik gabe ez du aparteko esanahirik: ikasketak bukatu ondoren lanean jarraitzeak, hobeto esan, hasi eta jarraitzeak du garrantzia aututan darabilkigun gai honetan. Eta alde honetatik bai, dei berezi bat egin nahi nieke bai gaurko, bai atzoko ikasleei euskararen munduan beren apurtxo eman dezaten. Agian egunen batean izango dugu jende aski ditugun behar guztiak betetzeko. Bitartean guztiok dakigu zenbat lan eta ikerketaren premiatan gauden, normalki lanorduetatik kanpo egin beharrezkoak.

Baliteke norbaitek zein lan egin daitekeen jakin nahi izatea ere. Ba omen dira lan egin nahi duten taldeak eta ez jakin zertaz. Filologia mailari dagokionez:

a) Hor dugu alde batetik Euskaltzaindiaren barruan "Gramatika Batzordea", momentu honetan izen sintagmaren azterketaz arduraturik. Geroago perpaus elkartu eta subordinatuez ere izango da zer esanik.

b) Hor dugu bestalde, "Dialektologi Batzordea", euskararen Atlas batetarako lehen bilketak egiten hasi nahirik aurtengo udan.

c) Fonetikaren alor osoa, egun hauetan aztertzen aritu diren azentuaren arazoa barne delarik.

d) Hitz berrien sorketari dagokionez, bada hitz konposatu eta eratorriei buruzko azterketen beharrik.

e) Lexikoaren mailan, hitzen familiak, sinonimoen, antonimoen eta abarren mundua nork arakatu zain dago.

f) Bestalde, herrietako euskara motak ere azter daitezke. Bakoi-tzak bere inguruko euskara zintatan jaso. Horretarako teknika egokiez jabetu ondoren, noski. Eta gero korpus hori aurrean dugularik, fonetika, morfologia, sintaxi, lexiko... mailan aztertu.

g) Edota aipatutako batzordeetan sartzeko uzkur dabilenak, baina lantxoren bat edo beste egiteko prest dagoenak, puntu ugari ditu astinaldi on baten zain. Neuri dagokidanez ez nuke inolako problema-rik izango morfosintaxi mailako zerbait aipatzeko.

Espero dut honenbestez inork filologiaren hazkurea badarama zertaz aritu ez jakiteak ez duela atzeratuko. Eta laguntza edo gidari-tza bila norabait jo nahi baduzue, seguru naiz euskara mailan ari gare-nok ez dizuegula muzin egingo.

Zer esanik ez neska eta mutil, andre eta gizon gonbidatzen dituda-la lanera, nahiz eta dei berezia egin emakumeei, lotsaz edo justifikazio-rik gabeko konpleren batez beren buruak bazter ez ditzaten.

Baina ez nuke utzi nahi txosten labur hau azken puntu bat aipatu gabe. Egia da hasieran esan dudanez, prestakuntza egokia behar dugu-la filologia arazoetan murgiltzeko. Baina euskara ongi menderatzearen beharra ere aipatu dugu euskalaritzarako. Eta beldur naiz gaur egun Unibertsitateko titulu eta agiriekin liluraturik ez ote dugun geure hizkun-tza piska bat baztertzeko eta euskarazko huts egite eta anka sartzeko errazegi barkatzen. Badakit aurkako egoera salatzen dutenak ere badi-rela —euskararen izenean kalitatea galtzea, alegia—. Ez genuke ez batean eta ez bestean erori behar, bi alorretan maila egokira iristen ahaleginduz, bietan etengabe aurrera jotzen saiatuz.



## EMAKUMEA IRAKASLE

*Karmele Esnal*

Euskal Irakaskuntzan murgildurik bizitu diren irakasleak egia esan ez dira idazle izan Julen Azpeitia salbuespenderik.

Irakasleak ez du betarik hartzen liberatur munduan abiatzeko, egunoroko lanak itotzen gaitu; horrek ez du esan nahi ahaleginak egin ez dugunik, ikasleei idazteko zaletasuna sortzen saiatzen ez geranik; alderantziz hori da gure bizi guztiko lana. Itxaron dugu urte haue-tako emaitzak aurrerantzean ikusterik eta hasiak direla, uste dut, idazle gaztetxoak plazaratzen.

Euskal irakasleak urte gogorrek jasan ditu beraien gaiak prestatzen. Libururik bakarra *Xabiertxo* izan genuen eta gogor jorratu genuen Euskal Herriaren jakintza ipuin, abesti, olerki eta abar ikasleei euskara irakatsi nahi bagenien.

Benetan aipatu eta goraldtu behar dugun euskal irakaslea Elbira Zipitria dugu; guda aurretik Muñoa jaunaren ikastetxean lana egin zuena, eta eta guda ondoren, 1940gn urtean, herbestetik itzultzera-koan, gelatxo batean berriro lanean hasi zen, urte zailak eta arrisku handikoak. Berari esker ditugu gaur ikastolak, berari zor diogu Donos-tian 1952gn urtean beste bi ikastola sortzea.

Eta Bizkaitik ere 1958gn urtean gure mahai buruan daukagun Julia Berrojalbiz ere Donostiara inguratu eta Elbiraren Pedagogi laguntzaz Bilbon ikastola zabaltzean Historia luze bat egin behar genu-ke horietaz, baina horretarako idazle izan behar.

Irakaskuntzan, urte haietan, emakumea mugitu zen, agian gizo-nezko batzuk bultzaturik izan ginen.

Euskal irakaslea aurrerakoia izan da pedagogia gaietan nahiz eta libururik ez izan nahiko irudimena azaldu du beraren lanerako eran. Ezin gintezke geldi ikasi ditugun asignatura batzuri heldurik, euskal kulturari sartu behar du, batipat.

Programek estutzen gaituzte, ez dugu lan sakonik azaltzen elkarrekin landuz; horregatik sarritan goitik behera ezartzen dizkigute helburuak, edukinak, textoak eta abar.

Gaur eskakizun berezi bat egin nahi nuke: bil ditzagun ikasleek idatzitako ipuin, bertso eta abar.

Galderak nahiago nituzke, bestela nire toxten hau irakasleen lanegokia azaltzeko propaganda bat izan daitekeela, uste dut.



## EMAKUMEA IRRATIAN

*Izaskun Barriola*

Hauek esan dutenaz gain ez dut nik gauza haundirik komentatzeko.

Izan ere norberak bere kultur jabetasuna anka-motz ikusten duenean, ausardia handia behar du zerbait ozenki esaten hasteko, lotsa publikoa gainditzeko. Baina tira, begi bakarrak batzutan, lo dagoenak baino gehiago ikusten du eta, banoa aurrera.

Bixenta Mogel esistitu zela jakiteak eta beraren bizitzaz zerbait jabetzeak, niri behintzat, horrelako poz bat eman dit. Kulturgintza honetan nire aportetxo mikroskopikoa egiten jarraitzeko horrelako ilusio izpi bat, ezin, duda eta atzera bueltatzeko tentazioen aurrean, argi izpi bat.

Inbiria ere bai, inbiria ere sentitzen da; sentitu dut Bixenta Mogel-ek 22 urterekin lehenbiziko liburua idatzi zuela, jakin dudanean. Gu, 30etik aurrera erori gara astotik.

Emakumea irratigintzan edo horrelako zerbait da niri egokitu zaidana.

Horretaz hitzegiteko, hemendik dozena erdi bat urtetara elkartzea askoz ere hobe litzateke, zeren... ofizio honetan hasia besterik ez bainaiz ni.

Nire aurretik hor ibili dira M. Dolores Agirre, Txaro Arteaga, Loiolako Ixiar pareak.

Nik esan diezazuekeedana, oso gauza laburra da. Hilabete batzue besterik ez daramatzat ofizio honetan. Euskaraz hasi berriak diren irratsaioetan gabiltza-nabil. Askotan, gehiegitan, nora-ezean.

Kondizio txarretan.

Profesionaltasunik ez.

Gertuan irakasle-maixu-maistrak falta.

Norberaren intuizioaren aginduz.

Hala ere, euskara berpizteko ez baina salbatzeko hizkuntza hitze-  
ginak zer garrantzi duen garbi daukat, eta aurrera egiteko asmotan,  
oraingoz behintzat.